


**2025-2026 IKASTURTEKO
ANTOLAKUNTZA URRUTIKO
HEZKUNTZAKO EUSKAL
INSTITUTUAN (*UHEI*)**



**Hezkuntza Politiketako
Sailburuordearen Ebazpena**



Ebazpen honen helburua da irizpide batzuk ematea Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuaren antolaketarako eta funtzionamendurako. Hezkuntza Politiketako Sailburuordetzaren eskumena da irizpideok ematea, betiere institutuaren autonomia errespetatuz pedagogian, ekonomiaren eta langileen kudeaketan.

Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuko zuzendaritzak ziurtatu behar du ikastetxeko irakasle guzti-guztiek ezagutzen dutela ebazpen honen eduki osoa, eta, horretarako, hartu beharreko neurri guztiak hartuko ditu.

Halaber, kontuan izanik legez zer aginpide aitortzen zaizkien ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenei (OOG, aurrerantzean Gizarte Kontseilua), eta ebazpen honek zer gai jorratzen dituen, ebazpen honek dakarrena **ikastetxeko zuzendaritza-taldeak Gizarte Kontseilu horri** ere jakinaraziko dio, **2025-2026 ikasturteko lehen hiruhilekoan** egiten den **lehenengo bileran**.



AURKIBIDEA

SARRERA**1. ESKOLAREN JARDUERA PLANIFIKATU ETA ANTOLATZEKO BALIABIDEAK**

- 1.1. HEZKUNTZAKO PROIEKTU FUNTZIONALA (HPF)
- 1.2. CURRICULUMA ETA EBALUAZIOA
- 1.3. IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-PROIEKTUA (IHP)
- 1.4. URTEKO PLANA (IUP)
- 1.5. URTEKO TXOSTENA
- 1.6. Antolaketa eta Funtzionamendu Araudia (AFA).
- 1.7. JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK
- 1.8. BERDINTASUN-IRIZPIDEAK
- 1.9. ELKARBIZITZAREN BEHATOKIA ETA ELKARBIZITZA-PLANA

2. UHEI-KO GOBERNU – KOORDINAZIO - ETA PARTAIDETZA - ORGANOAK**2.1. GOBERNU ORGANOAK**

- 2.1.1. KIDE BAKARREKO ORGANOAK
- 2.1.2. ZUZENDARITZAZ KANPOKO GAINERAKO KARGUAK
 - 2.1.2.1. IRAKASLE DELEGATUA
 - 2.1.2.2. OINARRIZKO HEZKUNTZAKO KOORDINATZAILEA

2.2. KOORDINAZIO-ORGANOAK

- 2.2.1. KOORDINAZIOKO BATZORDE TEKNIKOA (BATZORDE PEDAGOGIKOA)
- 2.2.2. DEPARTAMENTU DIDAKTIKOAK
 - 2.2.2.1. NOLA OSATUKO
 - 2.2.2.2. DEPARTAMENTUKO BILERAK
 - 2.2.2.3. DEPARTAMENTU DIDAKTIKOAREN ZEREGINAK
 - 2.2.2.4. DEPARTAMENTU-BURUA
 - 2.2.2.5. DEPARTAMENTU-BURUA IZENDATZEA
 - 2.2.2.6. DEPARTAMENTUKO DOKUMENTAZIOA
 - 2.2.2.7. HEZKUNTZA ORIENTAZIOA
 - 2.2.2.8. HEZKUNTZA-ORIENTAZIOKO IRAKASLEEN ORDUTEGIA
- 2.2.3. TUTORETZAK
 - 2.2.3.1. TUTOREEN IZENDAPENA
 - 2.2.3.2. TUTOREAREN EGINKIZUNAK

2.3. PARTAIDETZA-ORGANOAK

- 2.3.1. GIZARTE KONTSEILUA
- 2.3.2. IRAKASLEEN KLAUSTROA

3. IKASLEEN ANTOLAKETARI LOTUTAKO ALDERDIAK

- 3.1. PRESTAKUNTZA-ESKAINZEA.
- 3.2. MATRIKULA
- 3.3. ZENBAT DEIALDI
- 3.4. MATRIKULA LEKUZ ALDATZEA
- 3.5. EGUTEGIA



- 3.6. IRAKASKUNTZA: TUTORETZAK
- 3.7. IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK
- 3.8. ESKOLA-ERRENDIMENDUA OBJEKTIBOKI BALORATZEKO ESKUBIDEA
- 3.9. URRUNEKO IKASLEEN EBALUAZIOAREN INGURUKO ALDERDIAK
 - 3.9.1. HASIERAKO BALORAZIOA
 - 3.9.2. EBALUAZIO JARRAITUA
 - 3.9.3. AMAIERAKO EBALUAZIOA
 - 3.9.4. UNIBERTSITATEAN SARTZEKO EBALUAZIOAREN EGOKITZAPENAK.
 - 3.9.5. SALBUESPENAK
 - 3.9.6. BALIOZKOTZEAK
 - 3.9.7. DOKUMENTAZIOA
 - 3.9.8. EGIAZTAGIRIAK ETA TITULUAK

4. IRAKASLEEN ANTOLAKETARI LOTUTAKO ALDERDIAK

- 4.1. IRAKASKUNTZA-JARDUERAREN ANTOLAKETA
- 4.2. IRAKASLEEN LANALDIA
 - 4.2.1. ASTEKO LANALDIA
 - 4.2.1.1. LANALDI ARRUNTA DUTEN IRAKASLEAK
 - 4.2.1.2. LANALDI MURRIZTUA DUTEN IRAKASLEAK
 - 4.2.1.3. GAIXOTASUN KRONIKOA DUTEN FAMILIARTEKOEZ ARDURATZEKO BAIMENA DUTEN IRAKASLEAK.
- 4.3. ZUZENDARITZA-KARGUETARAKO ETA BESTELAKO KARGUETARAKO ORDU-MURRIZKETA
- 4.4. IRAKASLEAK LANERA ETORTZEA. ETORRI DIRELA KONTROLATZEA.

5. IKASTETXEKO ERAIKINEN ETA INSTALAZIOEN ERABILERA URTEKO PLANEAN AURREIKUSITA EZ DAUDEN JARDUERETARAKO

6. IKASTETXEETAKO OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA

- 6.1. IKASTETXEKO IKASLEEN ESKOLA-ASEGURUA IZAPIDETZEA ETA ORDAINTZEA
- 6.2. LARRIALDIAK:
- 6.3. IBILGAILUAK IKASTETXEKO EGOITZETARA SARTZEA
- 6.4. OBRAK
- 6.5. TABAKOA ETA EDARI ALKOHOLDUNAK

7. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUAREN ARAUDIA

- 7.1. SEGURTASUNNEKO LAGUNTZAILEA
- 7.2. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA PREBENTZIO-ARLOAN
- 7.3. LARRIALDI-SIMULAKROAK
- 7.4. BOTIKIN ERAMANGARRIA
- 7.5. LAN-ISTRIPUAK
- 7.6. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

8. DATU PERTSONALEN BABESA

9. IKASTETXEEN JABETZA INTELEKTUALA



**2025-2026 IKASTURTEKO ANTOLAKUNTZA URRUTIKO HEZKUNTZAKO
EUSKAL INSTITUTUAN (UHEI)
HEZKUNTZA POLITIKETAKO SAILBURUORDEAREN EBAZPENA**

SARRERA:

Har dezagun Bizialdi osoko ikaskuntzari buruzko Legea (1/2013 Legea, urriaren 10ekoa, gerora aldatu egin zena ekainaren 19ko 93/2018 Dekretuaren bidez), eta ikusiko dugu Euskal Autonomia Erkidegoan ikastetxe publiko bat bakarrik arduratzen dela unibertsitatez kanpoko urrutiko hezkuntzaz: Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutua (UHEI).

Gero, jo dezagun ekainaren 19ko 93/2018 Dekretura, Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuaren antolamendu, funtzionamendu eta autonomiari buruzkora, eta han ikusiko dugu nola bideratu behar den erregelamenduz agintzen dena, eta hezkuntza-komunitateko sektoreek nola parte hartu behar duten Institutua kontrolatzen eta kudeatzen.

Halaber, dekretu horrek dio Institutuaren autonomia Hezkuntza Proiektu Funtzionalaren barruan baliatu behar dela, eta, artikulatu, berriz, besteak beste curriculum-proiektuaren, antolaketa- eta funtzionamendu-erregelamenduaren eta kudeaketa-proiektuaren bidez. Horiek horrela, institutuko zuzendaritzari denen buruzagi izatea egokitzen zaio. Hezkuntza Proiektu Funtzionala erabiliko du horretarako erreferentzia gisa, zuzendaritza-proiektuan zehazten den moduan baliatuta.

Azkenik, ebaluazio-prozesuak ditugu. Autonomia baliatzeak, jakinekoa denez, emaitzak eta prozesuak ebaluatzea dakar berekin, eta, horregatik, prozesu horien nondik norako orokorrak ere ezarri ditugu, baita ondorioenak ere.

2025-2026 ikasturterako ebazpen honetan, arau horietaz gainera, ikastetxean irakasten diren etapei buruzko araudia ere hartu da kontuan. Amaitzeko, bagenituen konpromiso batzuk hartuak UHEIren antolaketaren eta funtzionamenduaren alderdi esanguratsuenak arautzeko, eta ez ditugu ahaztu; horiei ere erantzuten diegu.

1. ESKOLAREN JARDUERA PLANIFIKATU ETA ANTOLATZEKO BALIABIDEAK

1.1. HEZKUNTZAKO PROIEKTU FUNTZIONALA (HPF)

Ekainaren 19ko 93/2018 Dekretuak ezartzen duenarekin bat, hezkuntza-proiektu funtzionalean dator zehazturik nola baliatuko den institutuaren autonomia, eta bertan daude zehaztuta institutuaren helburuak eta haren jardunaren gidalerroak, guztia ere institutuko ikasleek eskatzen zaizkien kompetentziak eskura ditzaten eta prestakuntza ahalik eta gehien aprobetxa dezaten.

Horretarako, zuzendaritza-taldeak, bere agintaldiaren hasieran, Ikastetxearen Proiektu Funtzionala taxutuko du, institutuko partaidetza- eta gobernu-organismoek lagunduta. Proiektu horrek Gizarte Kontseiluaren oniritzia eduki beharko du, eta, bertan, gutxienez, aipatutako dekretuko 4. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.



Hezkuntza-proiektu funtzionalaren pedagogia-irizpideek arautzen eta orientatzen dute institutuan lan egiten duten langile guztien jardun profesionala. Zentroko zuzendaritzak ezarriko ditu prestakuntza eta harrerarako baliabide eta neurriak, zentrori iritsiko diren profesionalen hezkuntza-proiektua eta proiektu funtzionala ezagutu ditzaten.

Ikastetxearen hezkuntza-komunitatea osatzen duen pertsona orok izango du institutuaren hezkuntza-proiektu funtzionala ezagutzeko eskubidea. Horregatik, proiektua haien guztien eskura egongo da, eta ahaleginak egingo dira ezagutu dezaten.

Hezkuntza-proiektu funtzional hori ikastetxeko Gizarte Kontseiluak ere onartu eta berrikusi beharko du, eta Hezkuntzako agintarien eta ikuskaritzaren esku geratuko da.

UHEIn, irakasten dituzten gaiak osatzen dute heziketa-proiektua, gainerako ikastetxeetan bezala. Hauek izango dira oinarritzko erreferenteak:

- **OINARRIZKO HEZKUNTZA:**

- Helduak Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzeko gaitzen dituzten helburu nagusiak, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum zehazten duen curriculum dekretuen arabera.
- Hezkuntzako sailburuaren 2008ko urriaren 31ko AGINDUA, Helduen Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.
- AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Haur Hezkuntzako ebaluazioa eta Oinarritzko Hezkuntzako eta Batxilergoaren ebaluazioa, mailaz igarotzea eta titulazioa, hala badagokio.

Oinarritzko Hezkuntzako curriculum modulu didaktikotan antolatzen da. Curriculumaren antolaketatik begiratuta, modulu didaktikoa curriculumaren denborazko unitate bat da, antolaketa eta ebaluaziorako balio duena; ikaskuntza-multzo batek osatzen du, ikaskuntza horiek ardatz berekoak izanik eta koherentziaz eta progresiboki bilduta egonik.

Ikastetxea hobeto antolatzeko, modulu guztiek lau hileko iraupena izango dute (irailtik urtarrilera edo otsailtik ekainera); komunikazioa, gizarte eta zientzia-teknologia aurkituko ditugu Hasierako Irakaskuntzak IIn eta Helduentzako Bigarren Hezkuntzan.

Hezkuntza Ikuskaritzak curriculum erreferentzia horren arabera banatzen den egiaztatuko du, behar bezala ikuskatzearren nola ematen diren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako diplomadun-tituluak.

- **BATXILERGOA:**

- 76/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa Batxilergoaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.



- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko uztailaren 26ko Agindua, helduen Batxilergoko irakaskuntza arautzen duena, aurreko dekretuaren aurka ez doan guztian.
- AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Haur Hezkuntzako ebaluazioa eta Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko ebaluazioa, mailaz igarotzea eta titulazioa, hala badagokio.

Batzilergoak lau modalitate ditu: Arteen modalitatea, Zientzien eta Teknologiaren modalitatea, Giza eta Gizarte Zientzien modalitatea eta Modalitate Orokorra. Arteen modalitateak bi adar izango ditu: Arte Plastikoei, Irudiari eta Diseinuari buruzkoa bata, eta Musikari eta Arte Eszenikoei buruzkoa bestea.

Didaktika-departamentuek beren programak egokitu egingo dituzte ikasgaiak emateko moduan, eta helduen urrutiko hezkuntzarako metodologiarik egokiena hartuko dute. Nolanahi ere, metodologia horretan, aukeran, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliko dira, bai eta ikasleei ikaste-prozesua autonomiaz antolatzeak aukera emango dieten bitartekoak ere.

Hezkuntza Ikuskaritzak curriculumaren erreferentzia horren arabera banatzen den egiaztatuko du, behar bezala ikuskatzearen nola ematen diren Batxilergo-tituluak.

1.2. CURRICULUMA ETA EBALUAZIOA

Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuak autonomia pedagogikoa izango du, ebazpen honen 1.1 puntuan ezarritako curriculum-esparrutik abiatuta. Koordinazio didaktikoko departamentu bakoitzak zehaztuko ditu kasuan kasuko irakaskuntza-mailaren arabera ezarritako funtsezko gaitasunak, gaitasun espezifikoak, oinarrizko jakintzak, metodo pedagogikoak eta ebaluazio-irizpideak, eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan (IHP) txertatuko ditu.

Ikastetxeak, dagozkion organoen bidez, honako eginkizun hauek izango ditu:

- 1.- Ikasleen ezaugarrietara gehien egokitzen diren antolamendu- edo arreta-neurriak hartzea.
- 2.- Programazio didaktikoak eta, hala badagokio, ikaskuntza-egoerak eta erronken bidezko lanak eguneratzea, ezartzea eta ebaluatzea, arlo bakoitzaren gaitasun espezifikoak eta etaparen funtsezko gaitasunak garatzeko.
- 3.- Curriculum berriaren barruan hartzen diren erabakiak Hezkuntzako Proiektu Funtzionalean jasotzen eta inplementatzen direla ziurtatzea; erabaki horiek planifikatzea eta dagokion dokumentazioan jasotzea, abian jartzea, jarraipena egitea, ebaluatzea eta hobetzea, betiere ikastetxeko zuzendaritzak ezartzen dituen ikastetxeko koordinazio pedagogikoko organoekin koordinatuta (ikasketaburutza, pedagogia-batzordea, departamentu burutzak...).

1.3. IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-PROIEKTUA (IHP)

Ikastetxearen hizkuntza-proiektuak eskola-komunitatearen barneko hizkuntza-plangintzarekin zerikusia duten alderdi guztiak jasoko ditu, euskara ardatz izango duen elebitasuna sendotzeko eta eleaniztasuna sustatzeko xedez. Honako araudi hau izango da kontuan horretarako: Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 17. artikulua, Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legea, Ikasleen eskubide eta betebeharrak buruzko 201/2008 Dekretua,



Oinarrizko Hezkuntzako curriculumak zehazten duten 77/2023 Dekretuaren 8. eta 9. artikulak, eta Batxilergoko curriculumak ezartzen duten 77/2023 Dekretuaren 8. eta 9.

UHEIk, 76/2023 eta 77/2023 Dekretuetako artikulak horiek (hor zehazten dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen, Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumak), bere ezaugarrietara moldatu eta egokituko ditu; betiere bere hizkuntza-proiektua kontuan hartuz, eta aintzat hartuz hizkuntzak komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzea dela bide egokiena elebitasunaren helburua lortzeko eta jakintza-arlo eta ikasgai bakoitzeko curriculum-edukiak irakasteko. Horrek esan nahi du hizkuntzei buruzko erabakiak ez direla soilik hizkuntza-arloko irakasleen ardura. Hizkuntza komunikaziorako tresna eta oinarrizko eta zeharkako gaitasuna denez, ikastetxeko eremu edo ikasgai bakoitzean eta guztietan garatu behar da, aipatutako araudian jasotakoaren arabera. Horrenbestez, 2025-2026 ikasturtean hizkuntza-proiektua garatzeko lehentasunezko ahalegina ikastetxeak berak eremu didaktiko eta metodologikoan erabakiak hartzea eta gauzatzera zuzenduko da, eta batik bat gaitasunen ebaluazioarekin zerikusia dutenak.

Aurrekoaren ildotik, ikasgai eta arlo guztietako irakasleek hitzezko komunikazioko, ez-hitzezko eta digitaleko oinarrizko zeharkako gaitasunaren helburuak, edukiak eta irizpideak sartuko dituzte euren urteko programazio didaktikoetan, testuen idatzizko eta ahozko ulermena lehenetsita.

Ikastetxe guztiek bere ikastetxearen hizkuntza-proiektua egin edo eguneratua izan behar dute. Lan hori errazte aldera, Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua Prestatzeko Gida argitaratu du Hezkuntza Sailak.

Halaber, EAEko Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planaren 2.3 lerro estrategikoa kontuan izatea gomendatzen da, baita hezkuntza eleaniztunaren esparruan elebitasunaren garapenari lotutako baliabideak zein urteroko deialdiak ere.

1.4. URTEKO PLANA (IUP)

Ikasturte bakoitzaren hasieran, institutuko zuzendaritza-taldea *urteko plana* prestatzeaz arduratuko da, bere *Hezkuntza Proiektu Funtzionalaren* arabera; dena delako ikasturterako lehentasunezko ekintza-ildoak eta institutuaren jarduerari eta funtzionamenduari dagozkien alderdi guztiak bilduko ditu, baita, hala baldin badagokio, proiektuei dagozkien zehaztapenak, curriculumak eta hitzartu eta onarturiko jarduketaren plan eta -arau guztiak ere.

Ikastetxearen urteko planak aurrekontua ere jasoko du, uztailaren **28ko 196/1998 Dekretuan** edo hura ordezkatzeko arauetan ezarritakoaren arabera egin eta onartua, han baitago arauturik Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena. Plangintza hori erraztearen, Hezkuntza Sailak ikastetxeen esku jarri du [Ikastetxearen Urteko Plana eta Urteko Memoria egiteko gida](#).

Urteko Plana ikastetxeko Gizarte Kontseiluak onartu eta berrikusi beharko du, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo da **Heziguneren** bidez, **urriaren 27a** baino lehen. Institutuko zuzendaritza-taldeak bermatu beharko du hezkuntza-komunitateak baduela urteko planaren edukien berri.

Planak alderdi hauek hartzen ditu barne:

- a) Irakaskuntza-jardueren programa
- b) Prestakuntza-plana
- c) Urteko kudeaketa programa



a) Irakaskuntza-jardueren programa

Klaustroaren ardura da programa hori egitea. Baina, nahi badu, lan hori batzorde baten esku utziko du.

Ikasleek eskolak on line arazorik gabe hartu ahal izan ditzaten, irakaskuntza-jardueren programan, lehenengo hilabetea, ikasleekin konpetentzia digitala lantzeko jardura batzuk burutu beharko dira.

Barruko eta kanpoko ebaluaketen argitan erabakirik hartzen baldin bada ikasturtean zehar ikastetxea eta eskola-jardura hobeto antolatzeko, erabaki horiek irakaskuntza-jardueren programan jasoko dira. Horretarako, alderdi hauek izango dira kontuan:

1. Barne-ebaluazioko emaitzak aztertu ondoren hartutako hobekuntza-proposamenak. 2025-2026 ikasturterako hobekuntza-helburuak definituko dira, idazketaren ulermena eta ahozko adierazpena lehenetsiz.
2. HPFtik, bizikidetzeta-planetik (ikastetxeak berdintasun-alorrean eta genero-indarkeriaren prebentzioan aurrera egiteko garatuko dituen jarduerak barne), hizkuntza-proiektutik (irakurketa-plana lehenetsiz), aniztasunerako arreta-planetik eta zuzendaritza-proiektutik (halakorik balego) eratorritako helburu eta ekintzak.

Atal honetan alderdi hauek ere hartuko dira kontuan:

- Zer irizpide erabiliko diren irakasleei zereginak esleitzeko eta irakaskuntza-lanaldia eta ikastetxean egon beharreko aldia zehazteko, tutoretzak banatzeko, eta hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleekiko esku-hartzea eta jarraipena egiteko, betiere hezkuntza-laguntza eta -errefortzua jardun inklusiboen bidetik antolatzearren. Hori guztia, proposena zer den eta ondoen zer egokitzen den hartuz irizpide modura, administrazioaren premia soilak ez baino (ea nork antzinasunik handiena irakaskuntzan, ikastetxean, eta abar).
- Ikasleak elkartzeko irizpideak, erabilera erkideko guneen banaketa, baliabide didaktikoen antolaketa, azterketen datak eta abar.

Ez da beharrezkoa izango IUPan errepikatzea eskolako jardueren agirian (EJA) jasotako datuak.

b) Prestakuntza-plana

Ikastetxearen Urteko Planaren zati hau prestatzea zuzendaritza-taldeari edo pedagogia-batzordeari dagokio, eta Gizarte Kontseiluak onartu behar du.

Plan horrek barneko eta kanpoko ebaluazioen emaitzak eta proposatutako hobekuntza-helburuak aztertu ondoren hautemandako beharrei erantzungo die.

Ziurtatu behar da bai irakasleek bai ikasleek badaukatela nahikoa gaitasun teknologikoa lan-lotura digitala bermatzeko. Saiatu beharra dago -horretarako estrategiak erabiliz- ahalik eta bizkorren ohitu daitezen normal-normal erabiltzen teknologia digitalak, prestakuntza-plataformak (online saioak, ikasgela birtualak, bideokonferentziak edo bideodeiak sortu, kudeatu, sustatu eta irakasteko), ikastaroak sortzeko webguneak, irakasle-erkidego lagungarriak, gordailu eta baliabide-bilatzaile semantikoak, hala nola Amarauna, irakasleek aukera izan dezaten sortzen dituzten materialak elkarrekin erabiltzeko.



Planean jasota agertuko dira:

- Ikastetxean egingo diren prestakuntza-proiektuak, bai Hezkuntza Sailaren deialdietatik datozenak bai ikastetxearenak.
- Egingo diren prestakuntza-ekintzak eta horien plangintza (parte-hartzaileak, arduradunak, datak eta ordutegia).

Era berean, matematikako eta zientziako gaitasunen moduluekin lotuta, steam eremuarekin lotura duten ekintzak sustatuko dira, hau da, ikasketa-egoeren bidez zientzia, teknologia, ingeniari, arte eta matematiketako irakasgaiak elkarrekin harremanetan jartzen dituzten ekimenak.

IUPn aurreikusitako prestakuntza-jardueretan, irakasleen parte-hartzea derrigorrezkoa izango da. Erregistratu egin beharko da parte-hartze hori.

Zuzendaritzak ikasturtearen hasieran planifikatu behar du irakasle guztiak noiz egongo diren aldi berean ikastetxean, prestakuntza- eta koordinazio-lan batzuetan beharrezkoa baita denak egotea.

Prestakuntza-planak irakaskuntzan eta irakaskuntzatik kanpo ere nahiko du eragin, ikasleek irteerako profila lor dezaten eta barneko eta kanpoko ebaluazioen emaitzak hobetu daitezen.

c) Urteko Kudeaketa Programa

Ikastetxeko kudeaketa-proiektua, hain zuzen ere, urteko kudeaketa-programan hezurmamitzen da, aurrekontua egin eta onartzea izanik adierazlerik garbiena, zeina uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuan (1998-09-14ko eta 1998-09-23ko EHAA) ezarritakoari jarraituz egin beharko baita.

Zuzendaritza-taldeak edo Batzorde Iraunkorrak landu behar du IUPren zati hau, eta Gizarte Kontseiluak onartu.

Programa honetan jasoko dira gastua dakarten jarduerak. Hainbat atal bereizi beharko dira: diru-iturriak, gastu-aurreikuspenak eta gasturako irizpideak, kudeaketaren arduradunak, kontrol-sistemak eta abar. Egiterakoan, erosketa berdeko eta kontsumo jasangarriko irizpideak zein berdintasuna sustatzekoak sartzea gomendatzen da.

2025-2026 ikasturteko Urteko Kudeaketa Programa Hezkuntzako Ikuskaritzaren esku jarriko da, **Heziguneren** bidez. **Urriaren 27** baino lehenago egin beharko da.

1.5. URTEKO TXOSTENA (MEMORIA)

Zuzendaritza-taldearen ardura da ikastetxeko memoriaren lanketa koordinatzea, departamentu bakoitzeko memorietatik ateratako ondorioak integratuz. Ikastetxearen urteko planaren analisia eta betetze-maila eta lortutako eskola-emaitzak abiapuntu hartuz, Institutuak bere autoebaluazioa egingo du: ondorioak aterako ditu, hurrengo urterako hobekuntza-proposamenak egingo ditu eta lehentasunak ezarriko ditu, ikastetxearen hurrengo urteko planean lortu beharreko helburuak finkatzeko.



Memorian, ikastetxearen ikuspegi global eta bateratua eskaini beharko da. Laburra eta zehatza izango da, ikastetxearentzat berarentzat praktikoa izan dadin, eta [Hezkuntza Sailaren webgunean dagoen gidako gomendioei jarraituko die](#).

Txostena Gizarte Kontseiluak onartu beharko du, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura jarriko da Heziguneren bidez (sailaren web-orrian dago), irailaren 16 baino lehen.

1.6. ANTOLAKUNTZA- ETA JARDUERA-ARAUDIA (AJA).

Hezkuntza Sailak Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren eredu bat argitaratu du, ikastetxeek errazago egin dezaten.

Agiri honetan gutxienez gauza hauek jaso beharko dira:

- Ikastetxearen antolamendu-egituraren eta funtzionamenduaren definizioa.
- Hezkuntza-komunitateko kideen arteko bizikidetzatza eta elkarrekiko errespetua eta egoitzaren zein instalazioen erabilpen egokia bermatuko duten arauak.
- Ebaluazioen gaineko erreklamazioak egiteko araubidea.

1.7. JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK

Europa 2021 Estrategiarekin, Europako Itun Berdearekin eta 2020-2030 Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategiarekin bat etorritik, ikastetxeek jasangarritasunaren aldeko irizpideak eta eskola-bizitzan baliabideen kontsumoa kontrolatu eta murrizteko neurriak sistematikoki txertatu behar dituzte eskolako bizitzan.

Illo horretan, ikastetxeek bere jasangarritasun-konpromiso propioak zehaztu behar dituzte, bai curriculum propioan, bai kudeaketaren eta komunitatearen parte-hartzearen arloetan. Horrenbestez, ikastetxeek jasangarritasunaren aldeko helburu eta jarduera horiek beren hezkuntzako antolamendu-dokumentuetan (IHP, ICP, AJA, IUP, ...) jaso behar dituzte.

Iraunkortasunaren kultura hezkuntza-komunitateetan integratzeak dakar, batez ere, arazo ekologiko eta sozialen aurrean ikasleengan beharrezkoak diren konpetentziak eta konpromisoaren garapena. Funtsezkoa da ikasleen eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartze aktiboa sustatzea egungo eta etorkizuneko erronkei helduko dieten tokiko zein mundu mailako ekintza eraldatzaileak identifikatu eta garatzeko orduan. Hori lortzeko, diziplinartekotasunaren eta curriculumaren alderdi desberdinen arteko lotura bultzatuko da, krisi ekologikoarekin, justizia sozialarekin, ekitatearekin eta herritartasun globalarekin lotutako edukiak integratuz.

Horretarako, funtsezkoa da ikastetxeetan parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko gobernantza sustatzea, hezkuntza-komunitateak aktiboki parte har dezan erabakiak hartzeko garaian eta jasangarritasunerako ekintzak ezartzerakoan. Horretarako, elkarriketarako eta parte hartzeko espazioak ezarri behar dira, irakasleen, ikasleen, familien eta irakasle ez diren langileen arteko lankidetzatza sustatuz, eta jasangarritasunaren aldeko erantzukizun partekatuko kultura bultzatuz. Testuinguru horretan, hezkuntza-ingurune jasangarriagoa eraikitzen lagunduko duten ekintza praktikoa ugari egin daitezke:



- Eskolako Agenda 2030a ezartzea: jasangarritasunaren kultura hezkuntza-komunitateetan integratzea, bereziki ikasleengan, arazo ekologiko eta sozialetan esku hartzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta konpromisoak garatuz, tokiko eta munduko eremuan, eta ikastetxeko eta tokiko ekintza eraldatzaileak egitea, bai banakakoak, bai kolektiboak, orain eta etorkizunean.
- Larrialdi klimatikoari aurre egitea. Horretarako, mugikortasun jasangarria sustatzeko ekintzak egin daitezke (bizikleta edo garraio publikoa erabiltzea, ibilgailu pribatuen erabilera murrizteko neurriak ezartzea, eta abar.), ondasun komunak kudeaketa hobetzea (energia kontsumoa murriztea, hezkuntza-komunitatearen artean energia arduraz erabiltzea, energia berriztagarriko sistemak...), ura, materialak (kontsumoa murriztea, berrerabiltzea, birziklatzea...), eta abar.
- Komunitatearen ikaskuntza eta zerbitzua sustatzea: ikasleen parte-hartzea sustatzea komunitatearen benetako beharrak asetzen dituzten proiektuetan, hala nola, boluntariotzako ekintzak eta jasangarritasunarekin zerikusia duten komunitatearentzako zerbitzu-proiektuak.
- Tokiko komunitatearekin lankidetzan (Tokiko Agenda 2030), sareko lanean (IRAES, ESenRED, Eskoletako Urmaelen Sarea...) naturguneak eta eskola-patioak curriculumaren zati integral gisa erabiliz, naturarekiko lotura sustatuz eta abar curriculumaren zati gisa erabiliz, curriculum berritzea.
- Eskolako Protokolo Ekosoziala egitea. Dokumentu bat egitea, arlo ekosozialean jarduteko jarraibideak eta irizpideak jasoko dituen, eskola-komunitateak diseinatu, garatu eta gauzatu, ikasleak protagonista direla. Protokolo bat, honako irizpide hauek zehaztuko dituen: ikasleen eta familien harrera, irakasle berriak jasotzea; berdintasuna; bizikidetzatza eta gatazken kudeaketa; migratzaileen hizkuntza-finkapena; kontsumoa eta mantentze-lanak; hondakinen kudeaketa eta garbiketa; energiaren kudeaketa; uraren kudeaketa; osasun-protokoloa; patioen naturalizazioa; jolas-guneen kudeaketa; eskola-baratze ekologikoa; eskola-jangela osasungarria eta iraunkorra; mugikortasunaren kudeaketa; teknologien erabilera eta kudeaketa; zarataren kudeaketa; ingurunearekiko konpromiso ekosoziala... Jardueren erdigunean bizitza jartzen duten elementuak, guztiak eta elkarreraginean daudenak.

Hezkuntza Sailak, ikastetxeek iraunkortasunerako estrategia gauza dezaten, prestakuntza eskainiko du ingurumen-hezkuntzaren esparruan, ikuspegi ekosozialarekin eta Munduko Herritartasunarekin.

1.8. BERDINTASUN-IRIZPIDEAK

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearekin (martxoaren 16.ko 1/2023 Legegintzako dekretua) bat etorritik, ikastetxeek bultzatu duten hezkuntza-eredua pertsonen garapen integralean oinarritu behar da, estereotipoak eta rola alde batera utzita.

Illo horretan, UHEIk argi eta garbi esan beharko du berdintasunarekiko zer konpromiso hartzen dituen hezkuntzan darabiltzan politika, kultura eta praktiketan. Horrenbestez, ikastetxeek berdintasuna sustatzera eta genero-indarkeria prebenitzera zuzendutako helburu eta jarduerak horiek hezkuntzako antolamendu-dokumentuetan (IHP, Bizikidetzatza Plana, AJA, IUP...) jaso behar dituzte.



Era berean, hezkidetzara eta genero-indarkeria prebenitzera zuzendutako proiektuak garatuko ditu, eta irakasgai guztien curriculumaren diseinuan eta garapenean txertatuko ditu aipatutako Legean eta II. Hezkidetzara Planean jasotako hezkidetzara-helburuak ([EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzara Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean, 2020-2023](#))

1.9. ELKARBIZITZAREN BEHATOKIA ETA ELKARBIZITZA-PLANA

Elkarrekin bizitzen ikastea hezkuntzaren funtsezko helburuetako bat da. Bizikidetzara positiboa sutatzeko, eta hezkuntza-komunitate osoa engaia dadin hartan, ikastetxe guztiek Elkarbizitzaren Behatokia (EB) eduki behar dute eta Urteko Elkarbizitza Plana (UEP) egin behar dute. Behatoki hori ikastetxeko sektore guztien ordezkariak osatuko dute.

2. UHEI-KO GOBERNU – KOORDINAZIO - ETA PARTAIDETZA - ORGANOAK

2.1. GOBERNU ORGANOAK

2.1.1. KIDE BAKARREKO ORGANOAK

Hona hemen pertsona bakarreko gobernu-organoak: zuzendaria, ikasketa-burua, idazkaria eta administraria. Ikastetxeak ikasketa-buru laguntzaile bat izan dezake. Hezkuntza Politiketako sailburuordeak izendatuko du, UHEIren antolamendu, funtzionamendu eta autonomiari buruzko Dekretuan zehazten den sistema erabiliz (93/2018 Dekretua, ekainaren 19koa, 14. artikulua) .

Kargu horietako bakoitzak bete beharreko eginkizunak ekainaren 19ko 93/2018 Dekretuko 15., 17., 19. eta 20. artikuluetan deskribatutakoak dira.

2.1.2. ZUZENDARITZAKOAK EZ DIREN BESTE KARGU BATZUK

Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuan, zuzendaritzaz kanpo, beste kargu hauek ere egon daitezke:

- Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuko egoitza guztietan irakasle delegatu bat egon daiteke.
- UHEIk bi hezkuntza-etapa ematen dituen (Batxilergoa eta Oinarrizko Hezkuntza), Oinarrizko Hezkuntzako koordinatzaile bat eduki ahal izango du.
- Ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudiko irizpide eta prozeduren arabera, ikastetxeak beste koordinazio-kargu batzuk sor ditzake: prestakuntza-koordinatzailea, berrikuntza- eta esperientzia-proiektuen koordinatzailea, baliabide didaktikoen arduraduna...). Irakasle horien ordutegiak murriztea edo ez erabakitzeak, ikusi beharko da ikastetxeak berak zer dezakeen eta zer ez ordutegi aldetik. Kargu horiek ez dute ondorio administratiborik izango, eta ez dute osagarria kobratzeko eskubiderik sortuko.

2.1.2.1. IRAKASLE DELEGATUA

Irakasle delegatuak eginkizun hauek izango ditu ikastetxean:

- Egoitzaren funtzionamendua zuzentzea eta koordinatzea, Institutuko zuzendaritzak emandako jarraibideei kasu eginez.



- Arau, xedapen, proiektu eta jarduketa-programak betearaztea, bai eta egoitzako jardunean eragina duten erabakiak ere.
- Langileek egoitzan egiten duten lanaz den bezainbatean, haien guztien buru aritzea zuzendaritzaren ordezkari, ikastetxeko zuzendariak gai horretan dituen eskumenak errespetatuz eta betiere haren esanei jarraituz.
- Egoitzako irakasleek ikasketa-ordutegiak bete ditzaten zaintzea.
- Zaintzea eta begiratzea instalazioak, altzariak eta ikasmateriala egoera onean daudela.
- Ikastetxeko zuzendariaren ordezkari izatea ikasleekiko eta, beharrezkoa bada, haien familiekiko edo legezko ordezkariakiko harremanetan.
- AJAk esleitzen dion beste edozein eginkizun eta ikastetxeko zuzendaritzak zuzenean esleitzen dizkionak.

2.1.2.2. IRAKASLE KOORDINATZAILEA

Zuzendaritzak bi koordinatzaile pedagogiko izenda ditzake. Eginkizun eta ardura hauek izango dituzte, ikasketa-buruak zuzenduta eta gainbegiratuta:

- Ikastetxeak eta irakasleek hezkuntzaren arloan egiten duten oro pedagogikoki koordinatzea.
- Ikastetxeko irakasle-taldeen arteko komunikazioa eta lankidetzak.
- Saiatzea ea jendeak parte hartzen duen ikastetxeak aurrera daramatzan proiektuak garatzen eta burutzen.
- Koordinazio pedagogikorako batzordeari hobekuntza- eta prestakuntza-planak proposatzea.
- Bere eskumenen esparruan agintzen zaion beste edozein.

2.2. KOORDINAZIO-ORGANOAK

2.2.1 KOORDINAZIORAKO BATZORDE TEKNIKOA (PEDAGOGIA BATZORDEA)

Hauek egongo dira Koordinaziorako Batzorde Teknikoan: zuzendaria (presidentea izango da), ikasketaburua, ikasketaburu laguntzailea, koordinatzaileak eta ikastetxeko sailtako buruak. Batzorde honetara klaustroko edozein kide joan ahal izango da (hitzarekin baina botorik gabe), zuzendariak horretarako deia egiten badio, eta, betiere, eztabaidatuko diren gaiek hala eskatzen badute. Batzordeak erabakiko du zer metodo erabili aktak jasotzeko. Metodo hori ikastetxeko AJAn jasota utziko da. Metodori zehazten ez badute, ikasketa-buruak idatziko dute akta, txandaka.

Hezkuntza-etapa bakoitza koordinatzeko bada, Batzorde Teknikoaren bilerak zatika ere konbokatuta ahal izango dira; halakoetan, ikasketa-buruak eta etapa horretako departamentu-buruak soilik parte hartuko dute.

Batzorde honen eginkizunak 93/2018 Dekretuko 25. artikuluan daude zehaztuta.

2.2.2. DEPARTAMENTU DIDAKTIKOAK

Agintzen zaizkien gai edo arloetan irakasgaiak antolatu eta garatzeaz arduratzen dira didaktika koordinatzeko departamentuak. Departamentu-buruen zuzendaritzapean, bermatu behar dute arlo edo ikasgai bera edo antzeko ikasgaiak ematen dituzten irakasleak koordinaturik egongo direla. **Talde hauen zeregina eta lana taldekide guztien erantzukizuna da.**



2.2.2.1. NOLA OSATUKO

Ikastetxean departamentuak osatzeko proposamena egiteko, arau hauek bete behar dira, derrigor:

- Ikastetxean eskola-orduren bat ematen duten irakasle guztiak departamentu didaktikoren bateko kide izatea
- Ikastetxeak departamentu didaktiko hauek izango ditu, baldin eta dena delako espezialitateko gutxienez hiru irakasle espezifiko baditu:
 - Oinarrizko Hezkuntzan:
 - Hasierako Irakaskuntzen Saila
 - Hizkuntzen Saila
 - Zientzia eta teknologiaren Saila.
 - Gizarte-arloko Saila
 - Batxilergoan:
 - Ofizialen Euskara eta Hizkuntza Literatura Saila
 - Hizkuntza Ofizialen eta Gaztelania eta Literatura Saila
 - Atzerriko Hizkuntzen Saila (ingeleza eta frantsesa)
 - Latin eta Greko Saila
 - Geografia eta Historia eta Ekonomia Saila
 - Filosofia, Erlijio eta Balio Etikoen Saila
 - Matematika Saila.
 - Fisika eta Kimika Saila.
 - Biologia eta Geologia Saila.
 - Marrazketa Saila
 - Teknologia eta Informatika Saila
- Arlo edo gai horietako bakoitza irakasten duten irakasle guztiek osatzen dute dena delako departamentu didaktikoa, edozein egoitza edo lurralde historikotan jarduten dutelarik ere.
- Irakasle batek ere ezin du izan bi departamentu didaktikoko kide. Irakasle batek bi departamentu didaktikotako edo gehiagotako irakasgaiak ematen baditu, ordu gehiagoz ematen duen irakasgaiari dagokion departamentukoa bakarrik izango da. Hala ere, ematen dituen gainerako irakasgaiei dagozkien beste departamentuetako bileretan, lanetan eta erabakietan parte har dezake.
- Ikastetxean ez baldin badago espezialitate bateko berariazko hiru irakaslerik, eta, beraz, espezialitate horretako departamenturik sortu ezin bada, antzeko espezialitate gehiagoz osatuko dira departamentuak. Horretarako, espezialitate horietako irakasle behar dira gutxienez.
- Aurreko arauak agindu bezala eratzen diren sailez gain, ikastetxeak eskubidea izango du Orientazio Sail ez-didaktikoa eta Baliabide Teknologikoen Saila eratzeko, baina, hori bai, ikastetxean orientazioa ematen duten gutxienez hiru profesional beharko dira.
- Zuzendaritza-taldeak onartuko du ikastetxeko departamentuak (didaktikoak eta ez-didaktikoak) eratzeko proposamena, eta Ordu-tegi-koadroen (DAE) aplikazio informatikoan sartuko da, Hezkuntza Ikuskaritzak igorritako jarraibideak aintzat hartuta. Hezkuntza ikuskaritzak egiaztatu beharko du proposamenak eskatutako betekizunak betetzen dituen, eta, hala bada, bere oniritzia emango du aipatu aplikazio informatikoan, dagozkion ekonomia- eta administrazio-ondorioak izan ditzan.

2.2.2.2. DEPARTAMENTUKO BILERAK

Irakasleen ordutegian, asteko ordu bat, gutxienez, departamentuko kide guztiak batzartu ahal izateko utzi beharko da, eta ordu hori EJA-n agertuko da. UHEI berezia izanik, bilera horiek, ahal dela, telematikoa izango dira.

Bilera horietan departamentuko kide guztiek parte hartu behar dute. Bilera guztietan egingo da legezko akta, eta, bertan, gutxienez, nor bertaratu den eta nor ez, gai-zerrenda, eta zer erabaki hartu diren adieraziko da. Irakasleen gainerako ordutegi pertsonaleko hutsegiteak ere modu berean justifikatu beharko dira eta, kasua bada, ondorio berberak izango dituzte.

Ekainean, departamentuko kideek batzar bat egin beharko dute, lan-plana aztertzeko, zer lortu den eta zer ez, eta zer zuzendu behar den hurrengo ikasturterako.

2.2.2.3. DEPARTAMENTU DIDAKTIKOAREN ZEREGINAK

Departamentu didaktikoa egin behar du espezialitateko arloen eta ikasgaien programazioa. Saileko irakasle guztiek parte-hartuko dute lan horretan. Programazioa garatzeko, abiaburu modura, "[Programazio didaktikoa egiteko gidak](#)" erabili ahal izango dira, baita eranskinetan dakartzaten txantiloia ere. Dokumentu horietan dator zehazturik programazio didaktikoan zer jaso behar den araudiaren arabera.

Programazio didaktikoa gaitasun gakoak eta gaitasun espezifikoak lortzea errazten duten metodologietarantz jotzeko ikastetxean sartzeko benetako aldaketak islatu behar dituzte. Ildo horretan, programazio didaktiko guztiek, aurreko ikasturtean egindako lanetik abiatuta, aurrera egiten jarraituko dute arazo-egoerak edo erronkak sartzeko dituzten ikaskuntza-egoeren diseinua orokortzeko. (Aipatutako giden I. eranskinak horiek diseinatzen lagundu dezake).

Ikastetxeko Hizkuntzen Proiektuari dagokion atalean esan dugun moduan, irakasleek (arlotan eta ikasgai guztietako irakasleek), beren urteko programazio didaktikoetan, komunikazio hitzezkoarekin, ez-hitzezkoarekin eta digitalarekin erlaziozkoak helburuak ere sartu beharko dituzte, lehentasuna emanez beren ikasgaiak testu akademikoak idatzizko eta ahozko ulermenari.

Horretarako, Berritzeguneek beren gain hartuko dute aholkularitza hori, lehentasunez.

Bestalde, Hezkuntza Ikuskaritzak lehentasunezko bere jarduketara-helburuen artean izango du curriculum-garapena gaur egungo araudira egokitzen dela egiaztatzea, programazio didaktikoa aztertuta eta ikasgeletara bisitak eginda.

Sailak beste zeregin hauek ere baditu:

- Ikasketa hauek egiten dituzten herritarrek ezaugarri bereziak izaten dituztela-eta, material didaktikoa egitea ikasketak eta beste jarduerak batzuk uztartzen laguntzeko.
- Beren espezialitateekin lotutako hautazko irakasgaiak proposatzea.
- Ohiko eta, beharrezkoa denean, ohiz kanpoko probak prestatzea, eta kalifikazioei buruzko erreklamazioei erantzutea.
- Beren espezialitateekin zerikusia duten prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak eta bitartekoak prestatzeko proposatzea.
- Emaizta akademikoak aztertzea eta baloratzea, eta programazioak aztertzea eta zenbateraino betetzen diren balioztatzea.



Curriculum ofizialak erreferentziatzen hartuta betiere, sailek badute aukera haiek egokitzeko, hautatzeko eta zehazteko, diseinatutako lan-planaren eta programazioen arabera. Aldaketa guztiak sailaren aktetan adierazi behar dira. Ikuskaritzak bermatuko du egindako egokitzapenak curriculumeko gutxieneko irakaskuntzak betetzen dituztela.

2.2.2.4. DEPARTAMENTUKO BURUAK

Departamentuko kide guztien ardura da departamentuko atazak eta lanak idazten parte hartzea, iaztik irakasgarik gaitzitzea daukaten ikasleentzat probak prestatzea eta zuzentzea, estatistikak egitea eta abar.

Departamentuaren funtzionamendua departamentu-buruen ardura da. Zeregin hauek ditu buruak:

- Departamentuaren lana zuzentzea eta koordinatzea.
- Bilerak antolatzea, prestatzea eta bileren buru izatea.
- Irakasleek egindako programazio didaktikoak ikastetxeko zuzendaritza-taldearen eskura jartzea; departamentuan onartutako irizpideen arabera egin behar dituzte.
- Ikasle-taldearen programazioen garapenaren aldikako jarraipena egitea, eta programazioaren gutxieneko eduki eta eskakizun-mailak betetzen direla zaintzea.
- Dokumentu espezifiko batean jasoko den programazio didaktikoen ebaluazioa bermatzea.
- Etengabeko ebaluazioan departamentuko irakasleen koordinazioa bermatzea eta proba bateratu bat egitea ohiko eta ohiz kanpoko deialdietan.
- Departamentuak egiten dituen proben kalifikazioak ikuskatzea.
- Kalifikazioak direla-eta ikasleek egiten dituzten erreklamazioei erantzutea, eta erreklamazio horiek eragiten dituzten espedienteak zaintzea.
- Lanak kideen artean banatzea.
- Material eta jardura planifikatuak edukitzea departamentuko irakasleren bat ez dagoenerako, haren ikasleei behar bezalako arreta eman ahal izateko.
- Ikasketa-buruarekin harremanetan egotea departamentuko jarduerak ikastetxeko beste batzuekin koordinatzeko eta prestatutako lan-planaren bilakaerari buruz edo departamentuan antzematen den beste edozein gorabeherari buruz informatzeko.
- Bileretako aktak eginda daudela eta zainduta daudela bermatzea.
- Koordinaziorako Batzorde Teknikoan parte hartzea (Pedagogia Batzordea).
- Ikastetxeak AJAn zehaztu dituen beste betekizun batzuk.

Departamentu-buruak urriaren 14a baino lehenago eman behar dizkio programazio didaktikoak ikastetxeko zuzendariari, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura geratuko dira. Programazio didaktikoak Ikastetxearen Curriculum Proiektuan sartuko dira. Departamentu didaktikoko kide bakoitzari kopia bana emango zaio.

2.2.2.5. DEPARTAMENTU-BURUA IZENDATZEA

Zuzendariak izendatu behar du, irizpide hauek kontuan hartuz betiere:

- Departamentuko bertako irakaslea izan beharko du, eta ez du bere gain bestelako zuzendaritza-kargurik eduki beharko.
- Bigarren Hezkuntzako katedradunen kidegoko irakasleen artean hautatuko da, salbu eta zuzendaritzako beste kargurik ez duen kide bat ere ez den katedradun.
- Betiere aurreko irizpideak errespetatuz, aukeraketa AJAn xedatutakoaren arabera egingo da.

AJAK ez badu aurreikusten nola hautatu behar den departamentuko burua, zuzendaritzak izendatuko du, **irizpide pedagogikoei jarraituz**, eta departamentuko kideei entzun ondoren.



Izendatua izan ondoren, departamentu-buruak ezingo dio karguari uko egin, departamentu-burutza guztiek titular bat izateko ikasturte hasierarako.

Titularra falta denean, eta hutsune hori 6 hilabete baino gehiagoz luzatzen bada edo, salbuespen kasuetan, aldi laburragoetan, departamentuko kide den beste pertsona bati esleitu ahal izango zaizkio zereginak. Zereginen esleipen hori ikastetxeko zuzendaritzak gauzatuko du, dagokion Lurralde Ordezkaritzako Hezkuntzako Ikuskaritzaren baimena eskuratu ondoren.

2.2.2.6. DEPARTAMENTUKO DOKUMENTAZIOA

Bileretako aktak, departamentu didaktiko eta koordinazio pedagogikoko sail guztiek egin behar dituzte, eta ikastegiko kide bakarreko eta kide anitzeko organoen eta ikuskaritzaren eskura egongo dena.

Akta bat egin behar da departamentuak egiten duen bilera bakoitzeko. Bilerako parte-hartzaile guztiek izenpetu behar dituzte aktak, eta departamentu-buruak izendatutako irakasle batek idatzi behar ditu.

Ikasturtea amaitzean, departamentuaren memorian jasoko dira urteko programazioaren ebaluazioa eta betetze-maila. Ebaluazio horrek honako hauek jasoko ditu, gutxienez:

- a) Departamentuko ikasgai edo esparru bakoitzean ikasleek lortutako ikaskuntza eta emaitzak.
- b) Programazioa eta haren garapena; bereziki, irakaskuntza-estrategiak, ikasleak ebaluatzeko prozedurak, arloaren antolaketa eta ikasleen eskura jarritako baliabideen aprobetxamendua.
- c) Gaitasun espezifikoak, oinarritzko jakintzak eta ebaluazio-irizpideak nola egokitu diren ikasleen ezaugarrietara eta beharizanetara.
- d) Ikasleekiko harremana eta haien parte-hartzea.
- e) Departamentu didaktikoko irakasle-taldearen arteko koordinazioa.

Ikasleen probak, lanak, ariketak edo azterketak gorde egin beharko dira bai 2024ko urtarrilaren 22ko Aginduaren 5. eta 18. artikuluetan zehaztutako baldintzetan, bai EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 9. artikuluan zehaztutakoetan (2008-12-16ko EHAA).

2.2.2.7. HEZKUNTZA ORIENTABIDE

Orientatzaileak ikastetxeko tutoreen lana planifikatu eta koordinatuko du.

Orientazioa, hezkuntza-jarduera osoaren parte denez, irakasleei dagokie, beren irakaskuntza-eginkizunaren zati gisa. Horrek ez du eragozten gai honetan eginkizun espezifikoak esleitzea hezkuntza-orientazioko espezialitateko irakasleei (orientatzaileak).

Besteak beste, hauek dira orientatzaileen eginkizunak:

Aniztasunari erantzutea:

- Tutorearekin eta irakasle-taldeekin, ikasleek ikasteko dituzten zailtasun-egoerak detektatzea eta aztertzea, eta ikasleentzat egokienak izan daitezkeen antolamenduko, metodologiako, hezkuntza-indargarriko eta, hala badagokio, curriculum-egokitzapeneko neurriei buruz aholkatzea eta horien jarraipena egitea.



Orientazioa eta tutoretza:

- Etapa bakoitzerako orientazio profesionaleko programa bat prestatzea ikastetxeko ikasleentzat, berdintasuna sustatzeko ibilbideak eta etorkizun profesionala aukeratzean eta hezkuntza-sistemara modu presentzialean berriro sartzean, eta programa garatzeaz eta ebaluatzeaz arduratzea.
- Aldizkako koordinazio-bilerak egitea maila bakoitzeko tutoreekin, ikasleek ikasteko dituzten zailtasun-egoerei buruzko aholkuak emateko eta egoera horien jarraipena egiteko.
- Irakasleei aholku ematea hezkuntza-etapa bakoitza amaitzean, ikasleen orientazio-kontseilua prestatzeko, bereziki hezkuntza-neurriei eta prestakuntza-ibilbideko proposamenei buruzko erabakietan.
- Ikasleei eta haien familiei –ikasleak adingabeak badira– aholku ematea, bereziki garapen pertsonal eta akademikoarekin, hezkuntza-etapen arteko trantsizioarekin eta prestakuntza-ibilbideak aukeratzearekin zerikusia duten gaitan.
- Ikastetxeko koordinazio pedagogikorako batzordearekin lankidetzan aritzea, batez ere ikasketaburutzarekin, departamentu didaktikoak eta irakasle-taldeak koordinatzeko proposamenak eta jardun-planak aurkeztuta.
- Zuzendaritza-taldeari aholku ematea irakatsi eta ikasteko prozesuen etengabeko hobekuntza prestatu eta abian jartzeko.

Beste eragile batzuekiko koordinazioa:

- Ikastetxetik kanpoko gizarte- eta hezkuntza-arloko eta komunitate-arloko eragileekiko eta laguntzekiko koordinazioan lankidetzan aritzea, ikasleen jarraipen egokia, integrazioa eta arrakasta akademikoa lortzeko.

2.2.2.8.- HEZKUNTZA-ORIENTAZIOKO IRAKASLEEN ORDUTEGIA

Ikastetxeko gainerako irakasleen antzeko ordutegia bete behar dute.

Ordutegiaren banaketa ikastetxeko gainerako irakasleena bezalakoa izango da, salbuespen honekin: berariaz orientazio-jardueretan emandako orduak zenbatuko dira.

2.2.3. TUTORETZAK

Dena delako mailako irakasle-taldea da ikasleen artean esku hartzeko giltzarria. Funtsezkoa da talde hori ondo koordinaturik egotea, hartara esku-hartze hori koherentea izan dadin eta denen artean egin ahal izan dezaten ikasleen lorpenen eta zailtasunen jarraipena, baita “irakatsi-ikasi” prozesua birbideratzeko egin beharko bide diren esku-hartzeak ere.

Ikastetxeko AJAn, ikasturtean ikasle bakoitzarekin egin beharreko elkarriketen gutxienezko kopurua eta denborazkotasuna ezarri beharko dira.

2.2.3.1. TUTOREEN IZENDAPENA

Ikastetxeko zuzendaritzak izendatuko ditu tutoreak, ikasketa-buruak proposatuta, egokiena eta aproposena zer den kontuan hartuz.

Zuzendariak beste funtzio batzuk esleitu behar dizkie tutore-kargua bakarrik duten baina tutoretza-talderik ez duten irakasleei.



2.2.3.2. TUTOREEN EGINKIZUNAK

Tutoreak ikasleei banaka laguntzarekin zuzenean lotutako ekintza bat garatzen du, ikasleak bere proiektu pertsonala eraikitzen joan daitezen.

Behar bezala garatutako tutoretza-ekintzak bermatzen du taldeko ikasle bakoitza bere indibidualtasunean eta aniztasunean kontuan hartuko dela. Talde bakoitzeko tutorea da laguntzeko, desberdintasunak hautemateko eta aniztasuna hautemateko aukera gehien dituen hezkuntza-komunitateko pertsona.

Honako hauek izango dira, besteak beste, irakasle tutorearen eginkizunak:

- Ikaslearekin komunikazio arina izatea, batez ere salbuespenezko matrikula batetik datozen ikasleekin, haien indarguneak eta ahulguneak ezagutzeko eta biei dagokien hezkuntza-zereginen laguntzeko.
- Taldeko/Mailako irakasle-taldea koordinatzea, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuari dagokionez.
- Ebaluazio-saioak koordinatzea, eta emaitzak banatzea, txostenen bidez. Era berean, ikasgaiei buruzko estatistikak eta, ikasleen ebaluazioarekin loturik, ikasketa-buruak eskatutako datu guztiak osatu beharko ditu.
- Oinarritzko Hezkuntza amaitzean, etapa horretako tutoreak orientazio-aholkua idatziko du, irakasle-taldearen eta orientatzaile-taldearen aholkuak aintzat hartuta.

2.3. PARTAIDETZA-ORGANOAK

2.3.1. GIZARTE KONTSEILUA

Gizarte-kontseiluak kide hauek izango ditu:

- Institutuko zuzendaria; kontseiluburu arituko da.
- Institutuko ikasketaburua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako ordezkariak:
 - Ordezkari horietako bat, Unibertsitatez kanpoko hezkuntzaren arloan eskumena duen sailburuordetzak izendatutako du.
 - Beste lau, berriz, Hezkuntza-komunitatearen ordezkariak izango dira: bi, irakasleen ordezkariak, eta, beste bi, ikastetxeko ikasleen ordezkariak.

Institutuko idazkariak egingo ditu gizarte-kontseiluaren idazkari-lanak. Idazkari horrek hitz egiteko eskubidea izango du, ez ordea botoa emateko eskubiderik.

Behin ikastetxeko Gizarte Kontseilua eratuta (93/2018 Dekretuaren arabera jardungo du eta hango 23. artikuluko funtzioak beteko), pertsona bat izendatuko du, gizonen eta emakumeen berdintasun erreala eta eragingarria sustatzeko balioko duten hezkuntza arloko neurriak bultzatzeko.

2.3.2. IRAKASLEEN KLAUSTROA

Ikastetxean lan egiten duten irakasle guztiak izango dira Klaustroko kide, eta ikastetxeko zuzendaria izango da Klaustroko burua. Aipatutako 93/2018 Dekretuko 24. artikuluan zehazten dira klaustroaren funtzioak.

3. IKASLEEN ANTOLAKETARI LOTUTAKO ALDERDIAK

3.1. PRESTAKUNTZA-ESKAINZA

UHEIren prestakuntza-eskaintza honela egituratzen da:

- **OINARRIZKO HEZKUNTZA:**
 - **Hasierako Irakaskuntzak II; 3. eta 4. moduluak;** helduen alderdi guztiak garatzeko aukera emango duten ezagutza eta gaitasun orokorrak finkatzen dituzte.
 - **Helduen Bigarren Hezkuntza;** 1. mailan (1. eta 2. moduluak) eta 2. mailan (3. eta 4. moduluak) antolatzen da. Helduen prestakuntza osatzea, zabaltzea eta sakontzea du helburu, amaitzen dutenean behar adina gaitasun izan ditzaten esku hartuko duten esparru guztietan partaidetza handiagoa izateko. Gradu hau gaingiduta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzen da.
- **BATXILERGOA:** propedeutikoa da nabarmen; etorkizunean goi-mailako ikasketak (nagusiki, unibertsitatekoak edo goi-mailako lanbide-heziketakoak) egiteko prestatzeko etapa bat da, eta, hortaz, lan-munduan sartzen direnean eragina izango duten erabakiak hartzen hasten dira ikasleak. Batxilergoa gaingidzeak Batxilergoko titulua dakar, egindako modalitatean.

3.2. MATRIKULA

Urrutiko irakaskuntzako ikasleek ikasturteko gidaliburu bat izango dute, haien lan autonomoan orientatzeko. Gidaliburu hori ikasketa burutzaren ardura izango da, eta ikastetxeari, ordutegiei, egutegiei eta abarri buruzko informazio orokorra jasoko du. Era berean, ikasgai bakoitzaren lan-agenda bat izango du, ikasleen ikaskuntza errazteko interesgarritzat jotzen den informazioa jasoko duena: curriculum-elementuak, denbora-banaketa, material didaktikoak, jarduerak, ikasteko orientabideak, eta abar.

• OINARRIZKO HEZKUNTZA:

Urrutiko oinarrizko irakaskuntzetan sartzeko, ikasleek baldintza pertsonal hauetakoren bat bete beharko dute, eta agiri bidez egiaztatu beharko dira matrikula egiterakoan:

- a) Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua ez izatea.
- b) 16 urte beteta izatea matrikulatzen diren ikasturteko abenduaren 31n.
- c) DBHko ikastetxe arrunt batean matrikulatuta ez egotea eta matrikula egin nahi duen ikasturtean matrikulatuta ez egotea. Baldintza hori ez da aplikatuko ikasleak lan-kontratu bat lortu badu (behar bezala egiaztatuta) edo...ez izatea Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua.
- d) Salbuespen gisa, derrigorrezko eskola-adinean egon arren, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik baldintza normaletan eskolatu ezin direnak matrikulatu ahal izango dira, hala nola gaixotasun edo desgaitasuneko aparteko egoera batean daudenak edo irakaskuntzak erregimen arruntean egin ahal izatea eragozten dien salbuespenezko beste edozein egoeratan daudenak. Eskara dagokion lurralde-ordezkaritzan egingo da, eta hark baimendu edo ukatuko du eskatutako matrikulazioa, hezkuntzako ikuskaritzak txostena egin ondoren.



Lau hilean behin moduluka antolatutako irakaskuntza denez, 2025-2026 ikasturterako bi matrikula-aldi ezarri dira. Matrikula egiteko epea **ekainaren 16tik 26ra eta irailaren 1tik 30ra** izango da. Bigarren aldia **urtarrilaren 26tik otsailaren 6ra** izango da. Epe horietatik kanpo gertatzen diren kasu bereziek Ikastetxe eta Plangintza zuzendariaren berariazko baimena beharko dute.

Irailean matrikulatu eta 2. lauhilekoan ikasten jarraitu nahi dutenentzat, ikastetxeak jarraipena bermatuko die. Hala ere, 2. lauhilekorako matrikularen onarpena/eskaera sinatu beharko dute.

Ezin izango da gainditu edo baliozkotu diren esparruetako edo moduluetakoko matrikularik egin.

- **BATXILERGOAN:**

Urrutiko Batxilergora sartzeko, ikasleek bi baldintza bete behar dituzte: DBHko graduatu-titulua edukitzea; eta baldintza pertsonal hauekoren bat:

- a) Hamazortzi urte baino gehiago izatea edo adin hori izatea ikasturtea hasten den urtean.
- b) Salbuespen gisa, hamasei urtetik gorakoa izatea edo ikasturtea hasten den urtean betetzea adin hori baina lan-kontratua edukitzea eta ezin izatea ikastetxe arruntetara joan, edo errendimendu handiko kirolaria izatea, Musikako Gradu Profesionaleko 5./6. maila edo Dantzako Gradu Profesionaleko 5./6. maila egiten aritea. Matrikulatzen diren ikastetxezko zuzendaritzari egin beharko diote eskaria.
- c) Gaixotasunak edo ezintasunak direla-eta egoera pertsonala berezia izatea eta, horregatik edo aparteko beste edozein gorabeheragatik, ezin izatea ikastetxe arruntetara joan. Kasu horietan, interesdunak matrikula-eskaera aurkeztuko du UHElko zentroan, alegatutako salbuespenezko inguruabarrak egiaztatzen dituen dokumentazioarekin batera. Eskaera dagokion Lurralde Ordezkaritzan egingo da (ikus 7 2021eko maiatzaren 20ko Agindua), Hezkuntza Ikuskaritzak txostena egin ondoren, eskatutako matrikulazioa baimendu edo ukatuko duena.

Urrutiko Batxilergoko ikasleak ikasturte osorako matrikulatu ahal izango dira, edo ikasgai solteetan -gehienez ere hamaika-, betiere ikasgaien arteko lehentasun- eta bateraezintasun-arauak errespetatuz, indarreko araudian datozen moduan. Hurrengo ikasturtera igarotzeko, ez du gutxieneko jakintzagai-kopuru bat gainditu beharko. Ikasgaiak banan-banan gainditu ahal izango ditu, eta gainditzten dituenak jada ez ditu errepikatu beharko.

Batxilergoko ohiko matrikula-aldia **ekainaren 23tik uztailaren 11ra** izango da. Salbuespen gisa, UHElko zuzendariak urriaren 17ra arte eman ahal izango du ikasle baten matrikula egiteko baimena.

Batxilergoan ezin izango da aldi berean bi irakaskuntza-erregimenetako matrikularik egin, baina bada salbuespen bat, alegia, erregimen arrunteko ikasleen ikasgaiaren bat, antolaketa-arrazoiak direla-eta, ez baldin bada ikastetxe arruntetan eskaintzen baina bai urrutitik. Ikasle horien matrikula ohiko erregimenekoa izango da ondorio guztietarako, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak berariaz baimendutako ikasgaietan egingo da, eta, aldez aurretik, lurralde-ordezkaritzetako plangintza-unitateak baimendu beharko du.



3.3. DEIALDIAK:

Kopuruz, UHElko ikasleentzat ez dago deialdi-mugarik.

3.4. MATRIKULA LEKUZ ALDATZEA

Ikasle batek bere matrikula Helduen Hezkuntzako ikastetxe batetik (modalitate presentzialean) Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutura (UHEI) eramatea eskatzen badu, matrikulatuta dagoen ikastetxean egingo du eskaera. **Jatorrizko zentro** horrek UHElri eskatuko dio matrikulazioa, eta, lekualdatzeko aukera dagoela egiaztatu ondoren, ikasleak **sinatutako eskabidea** sartuko du matrikulen aplikazioan. Bertan, honako datu hauek jasoko dira (ikus eranskina):

- a) Jatorrizko ikastetxearen eta ikaslearen identifikazio-datuak.
 - b) Maila, modulua eta egiten dituen esparruak.
 - c) Destinoko zentroa eta ordutegia (goizez/arratsalde/gauetz)
 - e) Egokitze jotzen diren ohar guztiak.
 - f) Lekualdatzeko arrazoiak. Justifikazio dokumentala aurkeztu. Uko egiten duten berberak??
- helbide-aldaketa, lan-kontratua, gaixotasuna, bestelakoak

Lekualdaketa behin onartuta, **jatorrizko ikastetxeak** baja emango dio matrikulari. Behin hori eginda, **UHEIk, destinoko zentroak**, matrikula horren **alta egingo du** bere ikastetxean.

Lekualdaketa lauhileko baten erdian egiten bada eta matrikulari alta emateko epea itxita badago, destinoko UHEI zentroak pertsonaren datuak grabatuko ditu eta matrikulazioa eskatuko dio Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari, horretarako behar diren datu guztiak erantsita.

Ikastetxe berriak, ikaslea bere ikastetxean matrikulatuta dagoenean, espedienteen aplikaziotik sartu eta espediente osoa kontsultatu ahal izango du.

Antzeko prozedura erabiliko da UHEItik HHlko zentro batera modu presentzialean lekualdatzeko.

Ikastetxeek egokitze jotzen badute, telefono edo posta elektroniko bidez jakinaraziko dira lekualdaketa hori arintzeko.

3.5. EGUTEGIA

Eskolen egutegien oinarritzko arauak aipatzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko martxoaren 10eko Aginduekin, arestian aipatutakoa aldatzen duen 2013ko uztailaren 3ko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren Aginduekin eta Hezkuntza sailburuordearen 2025ko apirilaren 14ko Helduen Hezkuntzako Ikastetxeetarako Ebazpenean zehaztutako arauekin bat etorriz, honelakoa izango da 2025-2026 ikasturterako eskola-egutegia:

Oinarritzko Hezkuntzan, guztira, 175 eskola-egun izango dira; kopuru horren barruan sartuko dira helduei eskalak ematen dizkieten ikastetxeetako jarduera bereziak, hala nola, matrikulazioa egiten denetik lauhileko bakoitza hasten den bitartean egiten diren bana-banako elkarrizketak eta sarrera probak. Lehenengo lauhilekoko ikasleen eskolak irailaren 15an hasi eta urtarrilaren 23an bukatu beharko dira; eta bigarren lauhilekoak otsailaren 2an hasi eta, beranduen jota ere, ekainaren 19an amaituko dira.



Edonola ere, Bigarren Hezkuntzako azken moduluaren amaiera-datak ezartzean, kontuan izan beharko da noiz egin behar diren hurrengo irakaskuntza-mailetan sartzeko prozedurak; izan ere, prozedura horietan parte hartzeko duten eskubidea bermatu beharko zaie ikasleei. Urtarrilaren 26tik otsailaren 1era bitarteko astean, bana-banako elkarrizketak eta sarrera-probak egingo zaizkie taldeetara bigarren lauhilekoan sartzen direnei eta irakasleen prestakuntzakoei. Ekaineko azken egunak, aipatutako ebazpenean jasotzen den moduan, ez dira irakasteko izango, eta Ikastetxearen Plana ebaluatzeko erabiliko dira, memoria egiteko, eta bete beharreko administrazio-dokumentazioa betetzeko.

Batxilergoan, ikasturteak gutxienez 175 egun lektibo izango ditu, eta haietatik 160, gutxienez, eskola-egunak izango dira. Ikasturtea aurkezteko saioa eskola-egun horien artean sartu ahal izango da. 160 egun horietan, eskolak ezin dira bertan behera utzi, ez -ikasgai gainditugabeak dituztela- eta- ikasleei azterketak egiteko, ezta ebaluazio-batzordeak, klaustroak eta antzeko jarduerak egiteko ere.

Batxilergoko 2. mailan, 2025-2026 ikasturteko ohiko klaseak **2025ko maiatzaren 15an** amaituko dira. Maiatzaren 18tik ekainaren 19ra, biak barne, jarduera hauek egingo dira:

- Ohiko deialdiaren azken probak eta ebaluazioak egitea, notak ematea eta erreklamazioak ebaztea.
- Selektibitateko probak eta ezohiko deialdiko probak prestatzeko tutoretzak ematea. Gainditu ez duten ikasle guztientzat izango dira ezohiko deialdiko probak prestatzeko tutoretzak, baina baita dagokion ikasturteko gainerako ikasleentzat ere. Nolanahi ere, bai tutoretza horien bidez, bai beste jarduera alternatibo batzuk antolatuz, ikastetxeak bermatu beharko du Batxilergoko 2. urteko ikasle guztiek gutxienez benetako 160 eskola-egun izan dituztela, hala jartzen baitu 2008ko martxoaren 10eko Aginduan.
- Ezohiko deialdiaren azken probak eta ebaluazioak egitea, notak ematea eta erreklamazioak ebaztea.

Ohiko eta ezohiko deialdietako probak eta azken ebaluazioak egiteko, notak emateko eta erreklamazioak ebazteko aldiak ezin izango dira 160 eskola-egun efektiboen barruan zenbatu, baina bai ikasturteko 175 egun lektiboen barruan.

3.6. IRAKASKUNTZA EMATEA: TUTORETZAK

Irakaskuntza tutoretza kolektiboen eta/edo banakako tutoretzen bidez emango da.

- **OINARRIZKO HEZKUNTZA:**

- ✓ Oinarrizko Hezkuntzan, **tutoretza kolektibo birtualak** eskola-saioak izango dira, eta **aurrez aurre eman daitezke**, ikastetxean. Saio horietan, irakasleak programako gai bakoitzaren funtsezko puntuak irakatsiko ditu, nola ikasi behar diren jakiteko jarraibideak adieraziko ditu, ariketak ebatziko ditu, ikasleek planteatutako zalantza orokorrak argituko ditu, eta, oro har, ikasgaia asimilatzearen komenigarritzat jotzen dituen jarduera guztiak egingo ditu, departamentu didaktiko bakoitzak ezarritako irizpideen arabera eta tutoretza kolektiboetako jarduera-programen arabera (lauhileko bakoitzaren hasieran argitaratzen dira).



Tutoretza kolektibo birtualetan, saioak asteka antolatuko dira, arlo bakoitzaren ordurkargaren proportzioan.

- ✓ **Banakako tutoretzak** irakasleak ikasleen eskura dauden denbora-tarteak dira, jakintza-eremuekin lotutako banakako kontsultei erantzuteko. Horren bidez, irakasleak ikasleari sortzen zaizkion zalantza guztiak argitu eta orientatuko ditu. Kontsultak **zentroan bertan edo bitarteko telematikoen bidez** egin ahal izango dira, eta aurrez ezarritako ordutegietara egokituko dira.

Bere autonomia baliatuz ikastetxeak ikasturte bakoitzean xedatzen duenera moldatuko dira eskola-egutegiaren datak, tutoretza kolektibo birtualen eta indibidualen ordutegiak eta ebaluazio-probak egiteko datak, betiere arestian aipatutako arauetan eta ebazpen honetako arauetan ezartzen dena betez (ebazpen hau ikasturte-hasieran argitaratuko da).

• BATXILERGOAN

- ✓ **Tutoretza kolektibo birtualak** eskola-saioak izango dira, eta aurrez aurre eman daitezke, ikastetxean. Saio horietan, irakasleak programako gai bakoitzaren funtsezko puntuak irakatsiko ditu, nola ikasi behar diren jakiteko jarraibideak adieraziko ditu, ariketak ebartziko ditu, ikasleek planteatutako zalantza orokorrak argituko ditu, eta, oro har, ikasgaia asimilatzeke komenigarritzat jotzen dituen jarduera guztiak egingo ditu, departamentu didaktiko bakoitzak ezarritako irizpideen arabera eta tutoretza kolektiboetako jarduera-programen arabera (ikasturteko bakoitzaren hasieran argitaratzen dira).

Tutoretza kolektibo birtualetan, saioak asteka antolatuko dira, arlo bakoitzaren ordurkargaren proportzioan.

- ✓ **Banakako tutoretza**, berriz, **bitarteko telematikoen bidez edo aurrez aurre** egin ahal izango da. Banakako tutoretzaren bidez, irakasle tutoreak ikasle bakoitzaren ikaste-prozesuaren jarraipena egingo du, eta sortzen zaizkion zalantzak argituko dizkio.

Amaierako ebaluazio-proba (ikastetxeak erabakiko du zenbat balio duen, horretarako autonomia baita), aurrez aurrekoa izango da. Ikasleek, aurkezteko, ezinbestekoa izango dute NANaren, pasaportearen edo antzeko dokumentu baten bidez identifikatzea. Inolako irregulartasunik baldin badago azterketara aurkeztu direnen nortasunaren inguruan, idatzizko aurrez aurreko proba hori bertan behera utziko da, eta, behar izanez gero, jokabideak zuzentzeko prozedurari ekingo zaio, 201/2008 Dekretuan xedatzen den moduan, han baitatoz ikasleen eskubide-betebeharrak, eta Ikastetxearen Antolakuntza eta Jarduera Araudian ezarritako dagoen moduan.

Bere autonomia baliatuz ikastetxeak ikasturte bakoitzean xedatzen duenera moldatuko dira eskola-egutegiaren datak, tutoretza kolektibo birtualen eta indibidualen ordutegiak eta ebaluazio-probak egiteko datak, betiere arestian aipatutako arauetan eta ebazpen honetako arauetan ezartzen dena betez (ebazpen hau ikasturte-hasieran argitaratuko da).

3.7. IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Gai honi dagokionez, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastegietako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoan (EHAA, abenduaren 16koa) araututakoa aplikatuko da, baita indarrean dagoen araudiari jarraikiz ikastegiko AJAn dekretu hori zehazteko arautzen dena ere.



3.8. ESKOLA-ERRENDIMENDUA OBJEKTIBOKI BALORATZEKO ESKUBIDEA

Ikasle guztiek dute beren errendimendu akademikoaren ebaluazio objektiborako eskubidea. Bada, erabili ahal izango badute, beharrezkoa da aurrez jakin dezaten zein diren ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak eta gutxienezko zer helburu eta gaitasun lortu behar dituzten ebaluazio positiboa izateko, dela -Oinarritzko Hezkuntzan- moduluen barruko arloetako bakoitzean; dela -Batxilergoan- ikasturte bakoitzeko ikasgai bakoitzean. Hortaz:

- a) Ikastetxearen urteko planak eta departamentu didaktikoek dokumentuek aipatutako gaien zehaztapenen eta irizpideen berri eman behar dute.
- b) Ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudiak (AJA) bermatu egin beharko du ikasleek eta beren legezko ordezkariak -baldin eta adigabea bada- dokumentazio hori, zuzendutako ariketak edo ebaluazio-prozesuan kontuan hartu diren beste proba batzuen agiriak ikusteko aukera dutela, bai eta horien kopiak eskuratzeko aukera ere. Halaber, Araudiak ikasleek erreklamazioak aurkezteko zein prozedura jarraitu behar duten zehaztuko du.

Irakasleek, ikasturte bakoitzaren amaieran, ikasleei azalduko dizkiete arlo eta ikasgai bakoitza ebaluatu eta kalifikatzeko aplikatuko diren irizpideak, ikastetxeko sail egokiak onartuko dituenak.

Ikasleek eta, dagokionean, ikasleen guraso edo legezko ordezkariak, alegazioak aurkezteko eskubidea izango dute beren eskolako emaitzen ebaluazioan eragina duen lan, proba eta ariketa ororen aurka, eta errebisa daitezela eskatu. Alde horretatik, zuzentzea ezin da izan kalifikazio kuantitatibo edo kualitatiboa jartzea bakarrik; aitzitik, ikasleak egindako huts edo okerrak adierazi ere egin behar dira, edo kalifikazioa arrazoitu.

Ikastetxearen antolamendu eta funtzionamenduari buruzko Araudian, erreklamazio-prozedura ezarri beharko da, eta, hartarako, berrikusteko epeak eta baldintzak –irakasleentzat lotesle direnak– seinalatuko dira; betiere, kontuan izanik honako hauek: curriculum ofiziala, programazioak eta argitara emandako kalifikazio-irizpideak.

Ikastetxeak prozedura hori eduki beharko du, baina oraindik prozedura hori ez badu, Oinarritzko Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen ebaluazioa arautzen duen 2024ko urtarrilaren 22ko Aginduan ezartzen dena aplikatuko da, hurrenez hurren.

3.9. URRUNEKO IKASLEEN EBALUAZIOAREN INGURUKO ALDERDIAK

OINARRIZKO HEZKUNTZA:

Urrutiko Oinarritzko Hezkuntzako ikasleek zer ikasten duten ebaluatzeko, araudi honi jarraituko zaio:

- 77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2021eko urriaren maiatzaren 20ko Agindua, Helduen Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.
- AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Haur Hezkuntzako ebaluazioa eta Oinarritzko Hezkuntzako eta Batxilergoko ebaluazioa, mailaz igarotzea eta titulazioa, hala badagokio.



BATXILERGOA:

Urrutiko Batxilergoko ikasleek zer-zenbat ikasten duten ebaluatzeko, araudi honi jarraituko zaio:

- 76/2023 Dekretua, , maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.
- AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Haur Hezkuntzako ebaluazioa eta Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko ebaluazioa, mailaz igarotzea eta titulazioa, hala badagokio.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2021eko urriaren maiatzaren 20ko Agindua, Helduen Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

UHElko ebaluazioa etengabekoa izango da. Ikasleak ez ezik irakaskuntza-praktika ere ebaluazioaren gai izango da eta, oro har, ikastetxearen hezkuntza-proiektuan eta ikasketa-proiektuan eta hura gauzatzean, urteko planean, jasotako alderdi guztiak.

Urteko planaren ebaluazioari dagokionez, curriculum-sekuentziazioan sartu behar diren erabakiak eta aldaketak ebatziko dira lauhileko bakoitzaren azken astean egin beharreko irakasleen batzarrean. Erabaki horiek urteko memorian sartuko dira eta hurrengo urteko proiekturako oinarri izango dira.

Ikasleen gaitasunen ebaluazioa bana banakoa, jarraitua eta globala izango da, eta une hauek dira garrantzitsuenak: hasierako eta amaierako ebaluazioa.

3.9.1. HASIERAKO BALORAZIOA

Oinarrizko Hezkuntzan, derrigor, ikastetxeko irakasle-taldeak hasierako balorazioa egingo du, ikasleak aurretiaz dituen jakintzei eta esperientziei lotuta, kontuan hartu gabe jakintza eta esperientzia horiek prestakuntza-ibilbide konbentzionaletatik kanpo eskuratu dituen. Ikaslearen espedientearen idatziko dira hasierako balorazioaren ondorioz ikasleak egin behr ez dituen moduluak, eta adieraziko da zein diren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortzeko egin eta gainditu behar dituen esparruen moduluak eta mailak.

Zer hartuko da kontuan ikaskuntzen hasierako balorazioa egiteko?

- a) Ikasleek egiaztatzen duten prestakuntza arautua, Hezkuntzako sailburuaren 2021eko maiatzaren 20ko Aginduko III. eranskineko baliokidetasun-taularen arabera, agindu horren bidez zehaztu baitzen, eta ezarri baitzen EAEn, Helduentzako Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum espezifikoa.
- b) aitorpen ofizialerako ezartzen den gailuaren bidez aitortutako oinarrizko kompetentziak.
- c) ezagutza eta esperientzia profesionalak, bai eta hezkuntza ez-formal eta informalaren bidez eskuratutakoak ere.
- d) gutxienez urte akademiko batez utzita egon ondoren berriz ere ikaskuntza hauetara itzuli nahi dutenek zer dakiten, baldin eta prestakuntza arautu, esperientzia profesional, prestakuntza ez-arautu edo esperientzia ez-profesional berria egiaztatu nahi badute.

Kasu hauetan, hasierako balorazioa osatzeko beste proba ere egin ahal izango dira:



- a) prestakuntza arautua, esperientzia profesionala, prestakuntza ez-arautua edo esperientzia ez-profesionala egiaztatzerik ez dutenei.
 - b) III. Eranskineko taulak aplikatuta egin zaien balorazioarekin ados ez daudenei.
- Ikasleak kasuan kasuko gradu eta moduluan sartzeko bakarrik izango dira baliozkoak emaitzak. Hasierako ebaluazioaren ondorioz, ez da aurreko arlo edo modulurik gainditu izana aitortuko, ezta inolako ziurtagiririk lortuko ere.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken ikasturteko azken ebaluazio-txostena **Batxilergoan** ere erabiliko da, alegia, tutoretza-lanak egiten dituzten irakasleek beren taldeko ikasleen txosten hori ere aztertuko dute, arreta berezia jarri ikasle bakoitzaren ibilbide akademikoari buruzko alderdi garrantzitsuenetan. Horri esker, hobeto ezagutuko dituzte ikasle bakoitzaren bilakaera eta inguruabar pertsonalak eta testuinguruak.

Lehen eskolatzeko-hilabetea amaitu baino lehen, taldeko tutoreak ebaluazio-saio batera deituko du, hasiera horretan ikasleak nola dabiltzan jakiteko eta baloratzeko, alegia, jakintzagai bakoitzean hezkuntza-gaitasunak noraino barneraturik dauzkaten jakiteko.

Hasierako ebaluazioa izango da irakasle-taldearen erreferentzia-puntua curriculumaren garapenari buruzko erabakiak hartzeko eta ikasleen ezaugarrietara eta ezagutzetara egokitzeko.

3.9.2. EBALUAZIO JARRAITUA

Oinarrizko Hezkuntzan, ikasleen etengabeko ebaluazioa egiteko, horretarako aplikazio, plataforma eta programa informatiko espezifikoak erabiliko dira, eten gabe dihardutela edo irakaskuntzarekin etengabeko lotura dutela frogatzeko. Ikasleek behar bezala informatuta egon behar dute horretaz.

Etengabeko ebaluazioa egiteko, ikasturtean zehar egin beharreko lanak eta jarduerak erabiliko dira. Lan edo jarduera horien gutxienez % 80 –arlotan nahitaezkoztat jotzen direnetatik– aurkeztu ez duten ikasleak ezin izango dira etengabeko ebaluazioaren bidez kalifikatu.

Ikastetxeak ikaslearen lotura edo jarduera kontrolpean edukiko du, eta, etengabeko ebaluaziorako eskubidea galtzen badu, jakinarazi egin beharko dio.

Ikasle bakoitzaren prozesua ebaluatuko da eta egoki jotzen diren neurriak hartuko dira bere ikaskuntzan aurrerapen hobea egin dezan.

Ebaluazioa jarraitua denez, prozesu osoan hartutako oharren eta egindako ekintzen emaitza izango da ebaluazioa, bai eta ikaslearen autoebaluazioarena ere.

Ikasle guztiek amaierako proba bat egingo dute, aurrez aurrekoa eta idatzizkoa. Proba hori etengabeko ebaluazioaren zati izango da, eta ikastetxeak erabakiko du -bere autonomia erabiliz- zenbat balio duen.

Etengabeko ebaluazio-prozesuan parte hartu ez duten edo etengabeko ebaluazio hori egiteko eskubidea galdu duten ikasleek aurrez aurreko eta idatzizko proba bat egin beharko dute modulu bakoitzeko arlo bakoitzean. Ikasitako arlo osoa hartuko du, eta % 100eko balioa izango du ebaluaziorako.



Batxilergoan, ebaluazio jarraituak ikasturtean zehar egin beharreko lanak eta jarduerak eskatuko ditu. Lan edo jarduera horien gutxienez % 80 aurkeztu ez duten ikasleak ezin izango dira etengabeko ebaluazioaren bidez kalifikatu. Gainera, hiru hilean behin proba bat egingo da, aurrez aurre eta idatziz, eta proba horiek ere ebaluazio jarraituaren parte izango dira. Ikastetxeak erabakiko du - bere autonomia erabiliz- proba horiek zenbat balio duten. Ikasleek, etengabeko ebaluazio-prozesuaren bidez ez baldin badute gaitasuna lortzen, ez badute prozesu horretan parte hartu, edo prozesu hori galdu egin dute, ohiko eta ezohiko deialdiari dagozkion probak egin beharko dituzte. Proba horietan, irakasgai bakoitzari dagozkion eduki guztiak sartuko dira.

3.9.3. AMAIERAKO EBALUAZIOA

Ebaluazio-prozesua maila bakoitzeko irakasleek osatutako irakaskuntza-taldeak egingo du, eta taldeko irakasle-tutoreak koordinatuko du, beharrezko bada, ikastetxeko orientatzailearen laguntzaz.

Amaierako ebaluazio-proba (ikastetxeak erabakiko du zenbat balio duen, horretarako autonomia baita), aurrez aurrekoa izango da. Ikasleek, aurkezteko, ezinbestekoa izango dute NANaren, pasaportearen edo antzeko dokumentu baten bidez identifikatzea. Inolako irregulartasunik baldin badago azterketara aurkeztu direnen nortasunaren inguruan, idatzizko aurrez aurreko proba hori bertan behera utziko da, eta, behar izanez gero, jokabideak zuzentzeko prozedurari ekingo zaio, 201/2008 Dekretuan xedatzen den moduan, han baitatzen ikaslearen eskubide-betebeharrak, eta Ikastetxearen Antolakuntza eta Jarduera Araudian ezarritako dagoen moduan.

Arlo eta ikasgai bakoitzeko kalifikazioa arlo eta ikasgai bakoitzeko irakasleak erabakiko du. Gainerako erabakiak taldean hartuko dira, tutoreak koordinatuko irakasle-taldean.

Kalifikazioarekin batera, irakasle-taldeak ikaslearentzako txosten bat egingo dute eta, bertan, haren egoera akademikoa eta etorkizunerako orientabide egokiak adieraziko dituzte.

Hasierako Irakaskuntzak II eta Bigarren Hezkuntza amaitzean, ebaluazio-taldeak arlo bakoitzean lortutako gaitasunak ebaluatuko ditu.

Gradu edo irakaskuntza beraren barruan modulu batetik bestera igaro daiteke eremuren bat gaitasuna gabe, baina goiko modulua ebaluatzeko, gaitasuna edukitzea behar da beheko modulua.

Irakasle-taldeak, salbuespen gisa, erabaki ahal izango du bi arlotan ebaluazio negatiboa duen ikaslea hurrengo modulura igarotzea; baldin eta bietan ere gutxienez laukoa lortu badu, eta uste baldin badu ikasleak errehabilitatzeko aldeko aukerak dituela eta hurrengo modulura igarotzeak ikaslearen eboluzio akademikoari mesede egingo diola. Erabaki hori behar bezala dokumentatu, eta ikaslearen espedientean jasoko da.

Gradu bateko moduluren bat edo arloren bat gaitasuna duen ikasleak ezingo du hartan berriz ere matrikula egin.

Hasierako Irakaskuntza II eta Helduen Bigarren Hezkuntzako arlo bakoitzak kalifikazio bakarra izango du; ebaluazioaren emaitzak ikaslearen espediente pertsonalean eta ebaluazio-aktetan jasota daudenak izango dira. Ebaluazioaren emaitzak adierazteko, kalifikazio kualitatibo hauek erabiliko dira: Gutxiegi (G), Nahiko (N), Ongi (O), Oso Ongi (OO), Bikain (B); negatibotzat jotzen da Gutxiegi kalifikazioa eta gainerakoak, aldiz, positibotzat.



Adierazpen horiek kalifikazio kuantitatiboarekin ere adieraziko dira, dezimalik gabe, batetik hamarrerako eskalan. Honakoak dira baliokidetzak:

- Gutxiegi: 1, 2, 3 edo 4.
- Nahiko: 5.
- Ongi: 6.
- Oso ongi: 7 edo 8.
- Bikain: 9 eta 10.

Batxilergoan: ikasleen ebaluazioari dagokionez, Haur Hezkuntzako ebaluazioa eta ebaluazioa, mailaz igotzea eta titulazioa, hala badagokio, Oinarrizko Hezkuntzan eta Batxilergoan arautzen dituen Hezkuntzako sailburuaren 2024ko urtarrilaren 22ko AGINDUAN oro har, han xedatutakoa beteko da, mailaz igotzeko baldintzei dagokionean izan ezik; ikasleak ez baitu gutxieneko jakintzagai-kopuru bat gainditu beharko hurrengo mailara igarotzeko.

Ebaluazioaren emaitzak Orik 10era bitarteko zenbakien bidez kalifikatuko dira, hamartarrik gabe, eta 5etik beherako kalifikazioak negatiboak izango dira. Ezohiko probarako deialdian, ikaslea ez baldin bada probara aurkeztzen, adieraziko da ez dela aurkeztu (EA), eta kalifikazio negatibotzat hartuko da ondorio guztietarako.

Batezbesteko nota 1. eta 2. ikasturteetako ikasgai guztien kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa izango da, hurbilen den ehunetara biribilduta, eta distantzia bera egonez gero, zenbaki handienara biribilduko da.

Gainerakorako, irailaren 6ko 127/2016 Dekretuan (2016-09-23ko EHAA) jasotzen dira Batxilergoko ikasleen ikaskuntza ebaluatze prozesuaren erregulazioa eta administrazio-dokumentuak.

Salbuespen gisa, aurreko puntuetan aipatutako ebaluazio-probak (etengabeko ebaluazioa eta amaierako ebaluazioa) elkarriketen edo online proben bidez egin ahal izango dira, ikastetxeko AJAn jasotako baldintzetan. Online probetan, baldintzek probaren nortasuna eta egiletza arautu behar diruzte. Salbuespenezko kasu horiek gertatzen diren bakoitzean, ikasleen zerrenda eta justifikazioa jakinarazi beharko zaizkio Hezkuntza Ikuskaritzari.

3.9.4. UNIBERTSITATEAN SARTZEKO EBALUAZIOAREN EGOKITZAPENAK.

Hezkuntzarako laguntza-behar espezifikoak dituzten ikasleek egokitzapenak eskatu ahalko dituzte sarbide-probak egiteko. Sarbide-probetarako egokitzapen-motak ikusteko, lotura hau erabil daiteke: [sarbide-probetarako-egokitzapenak](#).

3.9.5. SALBUESPENAK

Euskal Herriko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzeko uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuan, Dekretu hori garatzen duen 1983ko abuztuaren 1eko Aginduan eta Hezkuntza Politiketako Sailburuordetzak horretarako emandako urteko ebazpenetan ezarritakoarekin bat etorriz izapidetuko da I.- Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaiak salbuesteko aukera. Gainera, Hezkuntza Ikuskaritzako Lurralde Burutzatik idazki bat bidaliko zaio, ikasturte hasieran, zuzendaritzari, eta bertan, sailburuordearen urteko ebazpena betetzeko jarraitu behar den prozedura zehaztuko da. Ebazpenak, halaber, Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaitik salbuesteko baldintzei buruzko argibideak ematen ditu. Idazkian, besteak beste, alderdi hauek zehaztuko dira:



- Ikasleek edota legezko tutoreek eginiko salbuespen-eskaerak.
- Ikastetxeek eskaerak kudeatzea, eskaera motaren arabera.
- Izapideak.
- Eskaerak egiteko epea.

Gogoan izan «ebaluaziotik salbuestea, baina ez irakaskuntzatik» motako kasuetan, Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaitik salbuesteak esan nahi duela ikasleak ez direla kalifikatuko baina kasu bai egin behar zaie, derrigor, tutoretzak eskainiz, banakako plan bat taxutu ondoren, hartara, matrikulatu diren irakasgaiko maila pixkanaka-pixkanaka lortu ahal izan dezaten.

3.9.6. BALIOZKOTZEAK

Oinarrizko Hezkuntzako baliozkotzeetan, Hezkuntzako sailburuaren 2021eko maiatzaren 20ko AGINDUKO III. ERANSKINEAN xedatutakoari jarraituko zaio, agindu horren bidez zehazten baita Helduentzako Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum espezifikoak, baita Euskal Autonomia Erkidegoan ezarri ere.

Batxilergoan, batxilergorako oro har xedatutakoa beteko da.

3.9.7. DOKUMENTAZIOA

Matrikula izapidetzeko edo formalizatzeko, espedienteak osatzeko, ebaluazio-aktak betetzeko eta egiaztagiria jaulkitzeko beharrezko dokumentazio guztia elektronikoki egingo da, Hezkuntza Sailak horretarako diseinatutako aplikazio informatikoaren bidez.

3.9.8. EGIAZTAGIRIAK ETA TITULUAK

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua emateko proposamena urteko bi alditan egingo da; hau da, beren prestakuntza-ibilbidea amaitu duten pertsonen kasuan, lauhilekoak amaitzean, Hezkuntza Administrazioak horretarako xedatzen duenaren arabera.

Batxilergo-titulua emateko proposamena ikasturtea amaitu ondoren egingo da, prestakuntza-ibilbidea amaitu dutenentzat, eta betiere Hezkuntza Administrazioak horretarako xedatzen duenaren arabera.

4. IRAKASLEEN ANTOLAKETARI LOTUTAKO ALDERDIAK

4.1. IRAKASKUNTZA-JARDUERAREN ANTOLAKETA

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legean ezarritakoaren arabera, Zuzendaritza Taldearen ardura da irakasle-taldeak antolatzea eta ikasturte hasieran erabakitzea irakasleei ikastetxeko unitateak zein irizpideren arabera esleituko zaizkien. Betiere, irakasleari bere kidegoa eta arlo bakoitzeko irakasgaitasun-aitormena edo espezialitatea errespetatuko zaizkio.

Matrikula egiteko garaia amaitzen denean zuzendaritza-taldeak irakasleak banatzeari ekin beharko dio, irakaskuntza, arlo, ikasgai eta ikasle-taldea. Horretarako, ez du irakasle-postuari dagokion espezialitatea izango soilik kontuan. Horrekin batera, kontuan hartuko du beste zein espezialitaterako trebatuta dagoen eta irakaskuntza-lanean zenbateko esperientzia duen, irakasle bakoitzaren ordutegia betetze aldera. Ikasketa-buruak prestatuko du arlo-, ikasgai-, talde- eta ordutegi-banaketa, zuzendaritzak onarpena eman beharko dio, eta irakasleek bete egin beharko dute, derrigor.



Ikastetxeko Zuzendaritza Taldeak ez baditu irizpideak finkatu, ikasketa-buruak txanda-sistema ezarriko du, alegia, taldeak eta txandak irakasle guzti-guztien artean txandaka aukeratuko dituzte. Halakoetan, irakasleen hurrenkera zehazteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan: irakaskuntza-funtzioa eta -atribuzioa zehazten duten arauak, langileak zer lanpostutara dauden atxikita, ekitatea eta irakaskuntzaren kalitatea lortzeko irizpideak, bai eta nahitaez bete beharreko irizpide eta arau hauek ere:

OINARRIZKO HEZKUNTZA:

1. Hasierako Irakaskuntzak II maisu-maistrek emango dituzte.
2. Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. moduluak Bigarren Hezkuntzako irakasleek emango dituzte. Baina maisu-maistren kidegoko irakasleek ere eman ahal izango dituzte, baldin eta azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuko lehenengo xedapen iragankorrean ezarritakoa betetzen badute (azaroaren 9ko BOE), han baitator zehazturik irakaskuntzako zer espezialitatetan jardun dezakeen Haur eta Lehen Hezkuntzan lan egiten duten maisu-maistren kidegoak.¹
3. Bigarren Hezkuntzako azken bi moduluak, berriz, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen eta Katedradunen kidegoetako irakasleek soilik emango dituzte.

BATXILERGOA:

1. Azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, Batxilergoko ikasgaiak Bigarren Hezkuntzako katedradun eta irakasleen kidegoetako irakasleek emango dituzte.
2. Espezialitate bakoitzari dagozkion irakasgai denen ordu guztiak zenbatuko dira, eta espezialitate horietako irakasleei esleituko zaizkie.
3. Espezialitate bateko irakasle guztiek beren espezialitateko irakasgaiekin osa baditzakete beren ordutegiak, hala egingo dute, eta ez zaie esleituko beste espezialitateetako irakasgairik.
4. Espezialitate edo lanposturen batean ezinezkoa bada espezialitatearen eta lanpostuaren arabera dagozkien ikasgai eta taldeekin osatzea irakasle guztien ordutegiak, ikastetxeko ikasketa-buruak, beste espezialitate edo lanpostu batzuetako soberako orduak erabiliz, ordutegia osatzeko beharrezkoak diren irakasgaiak eta taldeak esleituko dizkie ordutegia osatu gabe duten irakasleei, betiere baldintzak betetzen badituzte. Horretarako, dena delako espezialitate edo lanpostuko curriculumetik hurbilen dauden ikasgaiak esleituko dira, eta, haien artetik, ahal den neurrian, espezializazio-maila txikiagoa eskatzen duten ikasgaiak. Hori guztia ordezkapenei buruzko araudiaren eranskinetan ezarritako kidetasun-taulen arabera.

Maisu-maistren Kidegoko irakasleek, baldin eta LOE indarrean sartu aurretik (2006ko maiatzaren 24an) behin betiko lanpostua betetzen bazuten helduen hezkuntzako ikastetxeren batean eta gutxienez ikasturte batean irakasle modura aritu badira helduentzako Bigarren Hezkuntzan DBHko 1. eta 2. mailako baliokidean, orduan lanpostu horietan jarraitu ahal izango dute mugarik gabe, baldin eta etenik gabe maila horretan aritu badira irakasten; era berean, hezkuntza-administrazio bakoitzak helburu horretarako zehazten dituen maila horietako lanpostu hutsetara mugitu ahal izango dira.



Halaber, ikastetxeko irakasle guztiek, jatorrizko kidegoa zein duten kontuan hartu gabe, ikastetxeak egiten dituen lan pedagogikoetan aritu beharko dute irakasle, harik eta asteko irakaskuntza-dedikazioaren ordutegia osa dezaten arte.

4.2. IRAKASLEEN LANALDIA

LANALDI-mota eta egutegia gorabehera, irakaskuntzako langileen arduraldia 1.462 ordukoa izango da. Ebazpen honek arautzen du asteko lanaldia zenbat ordukoa den, eta nola banatuko diren curriculuma betetzeko orduak, ordutegi osagarria eta irakasleek ikastetxean eman beharreko orduak.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 34. artikuluan adierazitakoaren arabera, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 30eko 5/2015 Legearen 50. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, irakaskuntzako funtzionarioek urte natural bakoitzean hogeita bi egun balioduneko opor ordainduak gozatzeko eskubidea izango dute, edo, zerbitzu-denbora urtebetera iristen ez bada, proportzionalki egokituko litzaizkiekeen egunak. Oporrak kontatzeko, larunbata ez da egun balioduntzat joko.

Aipatutako oporraldia urte bakoitzeko abuztuan zehaztuko da. Iraileko lehenengo lanegunean, irakasle guztiak egon behar dira dagokien ikastetxean lanerako prest.

Oporraldia eten egin daiteke gaixoaldi edo istripuren bat izanez gero. Horrelako gorabeherak desagertu eta medikuak alta emandakoan, interesdunek oporraldiarekin jarraitzeko aukera izango dute. Hartu gabe geratu diren opor-egunak aldi bakarrean hartu beharko dira; ahal dela, eskolarik ez dagoenean.

4.2.1. ASTEKO LANALDIA

Ikastegiaren antolaketa errazteko eta betiere haren autonomia errespetatuz, irakasleen eginkizunak, modalitateak eta arduraldi-ordutegiak zehaztuko dira jarraian, klaustroa osatzen duten pertsonen aniztasuna eta premia espezifikoak jasoz.

4.2.1.1 ARDURALDI ARRUNTA DUTEN IRAKASLEAK

Irakasleek ikastegian duten zuzeneko arduraldi arrunta astean 30 ordukoa izango da. Oinarrizko Hezkuntzan, astean 23 ordu, normalean ikastetxean eman beharrekoak izango dira, eta, Batxilergoan, astean 25 ordu. Irakaskuntza-arduraldiko orduak hor zenbatzen dira; halakoek ikasleekin harremana izatea ekarriko dute, eta oinarrizko konpetentzia guztien bitartez haien irteera-profila lortzea izango dute helburutzat. Irakaskuntza-arduraldiko orduen barne egongo dira: banakako eta taldekako tutoretzen bitartez espezialitateko curriculuma emateko irakaskuntza-orduak, eskola telematikoetarako materiala sortzeko orduak, eta ikastegiaren hezkuntza-proiektuan ikasleen parte-hartzerako onartuta dauden proiektuetako jardueretan ematen diren orduak. Horrez gain kontuan hartuko dira mintegi didaktikoari edota koordinazio pedagogikoari dagozkion bileretan ematen diren orduak, prestakuntza-jardueretan eta ikastetxearen heziketa-proiektua garatzeko edozein jardueratan ematen direnak.

Astero zuzenean ikastetxeari eman behar dizkioten gainerako 7 eta, kasuan kasu, 5 orduak hilabeteka zenbatuko dira, eta ordu horiek honako jardura hauek egiteko erabiliko dira: etengabeko prestakuntza, departamentuaren jardura areagotzea, kide anitzeko organoen bilerak

egitea, ebaluazio-batzordeen bilerak egitea, ikastetxea planifikatu eta antolatuko duten tresnak prestatzea, taldeko eta mailako irakasleak koordinatzeko bilerak egitea, Hizkuntza Normalkuntzarako Batzordearen eta ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren batzordearen lanak egitea eta jarduera osagarriak egitea.

Ikastetxeari zuzenean eskainitako ordu horiei dagokienez, zuzendaritzak denbora jakin bat ezarri ahal izango du irakasle guztiak batera egon daitezen, hau da, prestakuntza-lanak egin behar direnean irakasle guztiak telematikoki batu daitezen. Zuzendaritzak zehaztuko ditu irakasle guztiak ikastetxean aldi berean egoteko aldi horiek, ikasturtearen hasieran. Ordu horien plangintza ikastetxearen Urteko Planean jaso behar da.

Ordutegiko gainerako orduak, ikastegiari zuzenean eskaintzekoak ez direnak, berriz, irakaslan prestatzeko, azterketak zuzentzeko, irakaslea profesionalki trebatzeko eta irakaskuntzari lotutako beste hainbat gai lantzeko erabiliko dira.

Dena delakoagatik irakaslearen ordutegiak irakaskuntza-arduraldiko ordu gutxiago baditu oro har ezarrita dauden orduak baino, zuzendariak ordutegia luzatuko dio irakasleari, ikastegian eman beharreko 23 eta 25 orduak osatu arte, kasu guztietan.

Irakasleen koordinazioa, lankidetzak eta prestakuntza errazte aldera, gomendatzen da irakasle guztien asteko arduraldia eta ikastetxean egon beharreko orduak denbora-tarte berean izatea, hezkuntza-komunitateak berak onartutako proiektu eta zerbitzuen ondoriozko salbuespenak salbuespen.

Oinarrizko Hezkuntzan, bigarren lauhilekoko matrikulazioaren ondoren beharrak areagotu egiten badira eta ikusten bada ikasleekiko arreta aldatu egin behar dela, beharrezkoak diren aldaketa guztiak egingo dira, baina ikasleen ordutegia inoiz ere aldatu edo okertu gabe, eta bermatuta lagata lehen lauhilekoan eskolak eman dituzten irakasleek bigarren lauhileko horretan ere jarraituko dutela.

Irakasleek ikastetxean duten dedikazio arrunt EZ zuzena atal honetan erantsitako taulan ezarritako zereginetara bideratuko da, 1.462 orduko urteko lanaldia osatu arte (urteko lanaldia osatu arteko gainerako orduak).

IRAKASLEEN LANALDIAREN LABURPENA				
1462H URTEKO LANALDIA	ASTEAN 30 ORDUKO OHIKO ARDURALDIA ZUZENEAN IKASTETXERAKO	ASTEAN ZENBAT ORDUZ NORMALEAN IKASTETXEAN EGON BEHAR: 23 OINARRIZKOAN 25 BATXILERGOAN	19/20 H ASTEAN	ESKOLAK EMATEA (TALDEKO ETA BANAKAKO TUTORETZAK) MATERIAL TELEMATIKOAK SORTZEA. BESTE IRAKASKUNTZA-JARDUERA BATZUK
			4/ 5 H ASTEAN	SAILETAKO BILERAK KOORDINAZIO-BILERAK. PRESTAKUNTZA BESTE IRAKASKUNTZA-JARDUERA BATZUK
		ASTEAN 5 EDO 7 H, JARDUERA OSAGARRIETARAKO	SAILEKO JARDUERAK BILERAK (KLAUSTROAK, IKASGUNEAK...) EBALUAZIO-BATZORDEAK,	



		(ez dira nahitaez ikastetxean egon beharrekoak)	HIZKUNTZA NORMALIZAZIOAKO BATZORDEA BERRIKUNTZA-PROIEKTUAK IKASTETXEKO BESTE PROIEKTU BATZUK UHEI-REN HELBURU, XEDE ETA EGINKIZUNEN BEREKO BESTE IRAKASKUNTZA-JARDUERA BATZUK
	URTEKO LANALDIA OSATU ARTEKO GAINERAKO ORDUAK	ESKOLAK PRESTATZEA BILERAK ETA BESTE JARDUERA BATZUK PRESTATZEA PROGRAMAZIOAK PRESTATZEA AZTERKETAK ZUZENTZEA DOIKETA PROFESIONALA BESTE IRAKASKUNTZA-JARDUERA BATZUK	

4.2.1.2. LANALDI MURRIZTUA DUTEN IRAKASLEAK

Lanaldi-murrizketa familia eta lana bateratzeko eskatu baldin bada, ikastetxeetako zuzendaritzek ahal duten guztia egingo dute interesdunaren ordutegiak kontziliazio horri erantzun diezaion, betiere ikasleen artean ezer txarrik eragin gabe, eta, hori bai, beharrezko pedagogia- eta antolamendu-koherentzia bermatuta.

- **Lanaldiaren erdia murriztea**

Lanaldiaren erdiaren murrizketa duten irakasleek astean 15 orduko lanaldia edukiko dute, eta horietatik 12 ikastegian eman beharko dituzte. Ikastegian eman behar dituzten orduak, asteko lanaldia osatzeko gainerako 3 orduak eta ikastegiari zuzenean eskaini behar ez dizkioten gainerako orduak aurreko atalean aipatutako zereginak betetzeko izango dira.

- **Lanaldiaren herena murriztea**

Lanaldiaren herenaren murrizketa duten irakasleek astean 20 orduko lanaldia edukiko dute, eta horietatik 16 ikastegian eman beharko dituzte. Ikastegian eman behar dituzten orduak, asteko lanaldia osatzeko gainerako 4 orduak eta ikastegiari zuzenean eskaini behar ez dizkioten gainerako orduak aurreko atalean aipatutako zereginak betetzeko izango dira.

Lanaldiaren seirena murriztea.

Lanaldiaren seiren bateko murrizketa duten bigarren hezkuntzako irakasleek astean 25 orduko lanaldia edukiko dute, eta horietatik 20 ikastetxean egon beharko dute. Ikastetxean eman behar dituzten orduak, asteko lanaldia osatzeko gainerako 5 orduak eta ikastetxeari zuzenean eman behar ez dizkioten gainerako orduak 2.2.4.a ataleko irakasleen lanaldiaren laburpen-taulan aipatutako zereginetara bideratuko dira.

Irakasleen ordutegia

Irakasleek asteko 30 orduko bere ordutegia jasota utzi beharko dute, ebazpen honetako jarraibideetan agintzen den bezala. Gainera, **pedagogikoki posible bada**, orduak honela banatuko dira:

- Lanaldi osoa eta lanaldiaren seiren bateko murrizketa duten irakasleentzat: 5 egun astean, astelehenetik ostiralera, egun bakoitzean ikastetxean gutxienez bi orduz egon beharra dutela.
- Lanaldiaren bi heren duten irakasleak: 4 egun astean, egun bakoitzean ikastetxean gutxienez bi orduz egon beharra dutela.
- Lanaldiaren erdia duten irakasleak: 3 egun astean, egun bakoitzean ikastetxean gutxienez bi orduz egon beharra dutela.
- Lanaldiaren bi heren duten irakasleak: 2 egun astean, egun bakoitzean ikastetxean gutxienez bi orduz egon beharra dutela.



4.2.1.3. GAIXOTASUN KRONIKOA DUTEN FAMILIARTEKOEZ ARDURATZEKO BAIMENA DUTEN IRAKASLEAK

Bigarren mailara arteko senide batez arduratzeko baimena duten irakasleek, indarrean dagoen akordio arautzailean ezarritakoari jarraituz, 50 ordura bitarteko baimen ordaindua izango dute ikasturteko. Oro har, ordu-kreditu hori egunean gehienez bi orduz erabili ahal izango da, eta lanera sartzeko orduan edo lanetik irteteko orduan baliatu beharko da. Baimena hartzen denean, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da.

Baimen hori ikastetxeko Zuzendaritzarekin koordinaturik baliatu beharko da, eskatzaileak ematen duen zerbitzua osatu ahal izateko, eta, hori gauzatzeko orduan, koherentzia pedagogikoa eta antolakuntzakoa bermatu beharko da.

Irakasleen ordutegia prestatzeko, curriculum eman behar ez duten orduen banaketan, aintzat hartuko dira baimen hau onartuta duten pertsonen adierazitako premiak. Baimen honek ez du esan nahi aurretik finkatutako ordutegia aldatzeko eskubiderik dagoenik.

Eskatzailearen eta ikastetxeko Zuzendaritzaren artean baimen hori hartzeko moduaren inguruan desadostasunik sortuz gero eta interesduna Zuzendaritzaren erabakiarekin bat ez badator, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango dio Hezkuntzako Lurraldeko ordezkariari, eta hark ebatziko du erreklamazio hori, Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena aztertu ondoren.

4.3. ZUZENDARITZA-KARGUETARAKO ETA BESTELAKO KARGUETARAKO ORDU-MURRIZKETA

UHElko zuzendaritza-taldeak ordu-murrizketa izango du, ebazpen honen 2.1. atalean adierazitako eginkizunak betetzeko. Murrizketa kalkulatzeko arauak indarrean dagoen araudian ezarritakoak izango dira.

Zuzendari eta beste kargu batzuentzat guztira dauden murrizketak nola banatu erabakitzeke, jarraibide hauek errespetatu beharko dira, beti:

Kargu bakoitzerako gutxieneko murrizketa:

- Zuzendaria: 9 ordu
- Ikasketaburua: 6 ordu
- Idazkaria: 6 ordu
- Administraria: 6 ordu
- Irakasle delegatua: 6 ordu
- Koordinatzailea: 3 ordu

Kargu titularraren ordu-murrizketak handiagoa izan behar du kargu laguntzailearenak baino. Eta kargu laguntzailearen berariazko osagarriaren zenbatekoa jasotzeko, 9 orduko murrizketa eduki beharko da gutxienez.

Ezarritako zenbakiak eta indarrean dagoen araudia errespetatuz, zuzendaritza-taldeak erabakiko du kargudun bakoitzaren ordu-murrizketa, ikastetxeari dagokion ordu-kopurua agortu arte.

2.1 puntuan azaldu dugunez, ikastetxeak, bere autonomia baliatuz, arau horietan dagozkionak baino kargu laguntzaile gehiago edukiko dituela ezar dezake Antolakuntza eta Jarduera Araudian



(AJA). Hala ere, kargu horien izendapenek ez dute ondorio administratiborik izango, eta ez dute emango eskubiderik inolako ordainsari osagarririk jasotzeko.

UHElko zuzendariak ostegun guztiak badaezpada gordeta utziko ditu, bilerara deitzen duten ere.

- Zuzendaritzako kide batek behintzat (edo irakasle delegaturen batek) ikastetxean egon behar du ohiko eskola-ordutegian, eta hala agertu behar du ordutegi orokorrean. Ezinezkoa bada baina larrialdi edo premiaren bat baldin badago, guardiako irakasleek zainduko dute eskolak eta gainerako jarduerak normal garatzen direla.

4.4. IRAKASLEEN BERTARATZEA ETORRI DIRELA KONTROLATZEA.

Irakasleek beren ordutegia bete egin behar dute. Erabiltzen diren mekanismoak ezartzea eta gainbegiratzeko Zuzendaritza-taldearen ardura izango da. Hezkuntza Sailak horretarako kontrol-mekanismo egokiak erabiliko ditu zuzentasun-, gardentasun- eta errespetu-irizpideak behar bezala aplikatuz, irakasle guztien lan-eskubideekiko. Irakasleen absentzia guztiak behar bezala justifikatu behar dira, eta, ahal den guztietan behintzat, agiriz egiaztatu beharko zaizkio Zuzendaritzari, azken horrek eskatu beharrik gabe eta indarreko araudian ezarrita dagoen moduan.

Aurretik jakin edo aurreikusi daitezkeen absentzietan, irakasleek behar adinako denborarekin eta idatziz jakinarazi behar dizkiote ikastegiko ikasketa-burutzari absentziak eragindako taldeetako ikasleek egin behar dituzten jarduerak eta horretarako komeni diren materialak eta jarraibideak, ordezkatuko dituzten hezkuntza-arretako irakasleek jarduera horiek egoki gara ditzaten.

Hutsegiteen frogagiriak ikastetxean artxibatuko dira, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira. Frogagiritan absentiaren eguna, ordu-tartea eta arrazoiak zehaztu beharko dira. Jatorrizkoak eta argiak izan beharko dira.

Irakasleak ezin badu dokumentu bidez justifikatu lanera joan ez izana, ez agertzearen arrazoiak azalduko dizkio ikastetxeko zuzendaritzari, eta arrazoi horiek bertaratze-agiriaren III. eranskinean jasoko dira. Eranskina interesdunak eta ikastetxeko zuzendariak sinatuko dute. Bigarren sinadura horrek esan nahi du azalpena ikastetxeko zuzendaritzak sostengatzen duela, sinesgarritasuna eta baliozkotasuna emanez. Era berean, ikastegiko zuzendaritzak ez badu nahikotzat jotzen irakasleak emandako justifikazioa, ez du eranskina sinatuko; ondorioz, absentzia justifikatu gabeko falta bezala ageriko da hilabeteko partean, eta dagozkion ondorioak aplikatuko dira. Hala ere, kasu horretan, irakasleak egoki iruditzen zaizkion alegazioak egin ahal izango ditu Hezkuntza Ikuskaritzan, eta handik lurralde-ordezkaritari jakinaraziko zaizkio, azken ebazpena eman dezan.

Irakasleren batek ez badu ordutegia betetzen, Zuzendaritzak bete dezala eskatuko dio. Hala ere ez badu ordutegia betetzen, Lurralde Ordezkaritzako Langileen Unitateari jakinaraziko dio, baita Hezkuntza Ikuskaritzari ere, behar diren neurriak har ditzaten.

Era berean, greba badago, ikastetxeko zuzendariak Ikuskaritzan jakinaraziko du intzidentziaren berri, datuak zehaztuz, eta ikasleei ahalik eta arreta egokiena emateko modua antolatuko du, erabilgarri dituen giza baliabideekin.

Hurrengo hileko 5a baino lehen, ikastetxeko zuzendariak irakasleen hutsak erregistratuta utziko beharko ditu, "Eskola Jardueraren Agiria (EJA)/Ordutegi-koadroak" aplikazioan, "Irakasleen absentismoa" erlaitza erabiliz. Erlaitz horretan sartu ondoren, zer irakaslek egin duen huts eta hutsaren eguna, iraupena eta zergatia adieraziko dira.

EJAn zabalgarri bat agertuko da huts egiteko arrazoi GUZTIEKIN, eta dagokiona aukeratu beharko



da. Hutsa justifikatuko ez balitz, ikastetxeko zuzendaritzak arrazoi hori aukeratuko du EJako hutsegiteen zabalgarrian, eta aplikazioak automatikoki bidaliko dio jakinarazpen bat erreferentziako ikuskariari. Hark Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean kasu horretarako aurreikusten diren prozedurak hasiko ditu.

Lan-baldintzak arautzen dituen akordioan aipatzen ez diren beste arrazoi batzuegatik huts eginez gero, ikastetxeko zuzendaritzak «Beste arrazoi batzuk» aukera hautatuko du EJako hutsegiteen zabalgarrian, eta irakasleak, gainera, «III. eranskina» dokumentua bete beharko du.

Irakasleen absentziak behar bezala kudeatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Irakasleek hutsegiteak arrazoitzeke agiriak aurkeztu behar dizkiote zuzendariari, dagokionean, hark noiz eskatuko zain egon gabe.
- Ikastetxetik kanpo IRALE ikastaroetan edo antzekoetan dabilzan irakasleek ikastaroa egiten ari diren lekuan bertan aurkeztu behar dituzte ikastarora huts egin izana arrazoitzeke agiriak.
- Ohiko eskola-orduetan irakaslerik falta bada, egoera horri aurre egin eta ikasleei arreta egokia emateko ikastetxean prestatu den prozeduraren berri eman beharko zaio Gizarte Kontseiluari.
- Eskolak behar bezala ematea eragozten duen edozein gorabehera **berehala** jakinarazi behar zaio Ikuskaritzari.
- Hutsegiteen frogagiriak ikastetxean artxibatuko dira, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira. Frogagirietan absentziaren eguna, ordu-tartea eta arrazoiak zehaztu beharko dira. Jatorrizkoak eta argiak izan beharko dira.

5. IKASTETXEKO ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK URTEKO PLANEAN AURREIKUSI GABEKO JARDUERETARAKO ERABILI BEHAR DIRENEAN

Maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuak (EHAA, 2008ko maiatzaren 19koa) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-eraikin eta instalazioak ikastetxeen urteko programazioetan sartuta ez dauden prestakuntza-, kirol- eta kultura-jardueretarako zein izaera sozialeko bestelako jardueretarako Administrazioak eta ente publikoek edota edozein pertsona fisikok zein juridikok erabiltzeko prozesua arautzen du.

Dekretu horren artikuluek zehazten dituzte, besteak beste -eta dekretua derrigor bete beharrekoa da-, jardueren ezaugarriak, instalazioak, lehentasunak, erantzukizunen araubidea eta eskaerak egiteko eta baimenak emateko prozedura ohikoa eta laburtua.

6. IKASTETXEETAKO OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA

Hezkuntza-komunitateko hainbat eragilek eskola-bizitzan parte hartzeak eta laguntzeak bereziki ikasleen osasunarekin eta segurtasunarekin lotutako zenbait alderdi nahitaez arautzeko eskatzen du, eta ikastetxean biltzen den kolektibo osoarena ere bai.

6.1. IKASTETXEKO IKASLEEN ESKOLA-ASEGURUA IZAPIDETZEA ETA ORDAINTZEA

DBHko 3. mailatik unibertsitateko hirugarren ziklora bitarteko 28 urtetik beherako ikasle guztiek



Gizarte Segurantzaren Eskola Aseguruan sartuta egon behar dute. 2018-2019 ikasturtetik, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoek aseguru horren tramitazioa eta ordainketa egin behar dute, jarraian adierazten den moduan:

1.- Matrikula amaitutakoan, urriaren 31 baino lehen, ikastetxeak Hezkuntza Sailera igorriko du, aldezturik jakinaraziko zaion helbide elektronikora idatzita, EXCEL fitxategi bat, informazio hau bilduz: ikastetxearen izena, 8 zifrako kodea, KKK (kotizazio-kontuko kodea) eta egun horretara arte ikastetxean matrikulatu diren eta eskola-aseguruan sartu behar diren ikasle guztien datuak. Ikasle bakoitzari buruzko datu hauek eman beharko dira fitxategian:

- Ikaslearen identifikazio-dokumentu mota (NAN, AIT, etab.)
- Ikaslearen identifikazio-dokumentuaren zenbakia (letra barne, halakorik dutenen kasuan)
- Izena
- Lehen abizena
- Bigarren abizena (halakorik dutenen kasuan)

Ikastetxeei artxibo-eredu bat emango zaie, ikastetxeek datuak bete ditzaten.

2.- Hezkuntza Sailak elektronikoki sartuko ditu datu horiek guztiak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren informatika-aplikazioan, eta eskola-aseguruaren kuoten likidazio-agiria jasoko du (ordainketa-gutuna). Ikastetxe bakoitzari posta elektronikoz igorriko dio dokumentu hori. Ikastetxeak dagokion zenbatekoa ordaindu beharko du edozein finantza-erakundetan, ordainketa-gutuna jaso eta bost eguneko epean, gehienez ere.

3.- Hori egin ostean ikasle gehiago matrikulatzen badira eta ikasle horiek eskola-aseguruan sartu behar badira, ikastetxeak azaldutako prozedura berriz egin beharko du, behar adina aldiz. Matrikulatutako ikasle berrien datuak dituzten EXCEL fitxategiak hileko azken egunean egingo dira, azaroaren 30etik ekainaren 30era bitartean, hilabete horretan matrikulazio berririk izan bada. Kasu horietan, aurreko bi ataletan deskribatutako prozedura errepikatuko da.

6.2. LARRIALDIAK

Ikastetxeetan osasun-larrialdirik badago, ikastegiko irakasleek edo irakasle ez diren langileek 112 LARRIALDI-ZERBITZURA deitu behar dute, eta han emango dizkiete zer egin behar duten jakiteko jarraibideak.

6.3. IBILGAILUAK IKASTETXEKO EGOITZETARA SARTZEA

Ikastegira sartzen den edozein ibilgailuk zuzendaritzaren baimena izan beharko du.

Sartzeko baimena izanda ere, ezin izango da ikasleak sartu eta irteten direnean sartu. Gainera, adostutako prozedura bat ezarriko da eta ordutegiak, ibilbideak eta eskola-esparruaren barruan zirkulatzeke arauak zehaztuko dira, baita seinaleztatzea ere. Prozedura hori idatziz erregistratuko da eta ikastegiko arduradunek eta ibilgailuaren arduradunak ezagutuko dute.

Ohiz kanpoko egoera batean sartzen bada ikastetxera, ikastetxeko zuzendaritzak edo haren

ordezkariak ibilgailuari lagundu behar diote.

6.4. OBRAK

Gerta liteke eskola-ordutegian obrak egin behar izatea ikastegian.

Obra batzuen proiektuak segurtasun- eta osasun-azterketa bat hartzen du barnean. Edonola ere, obra horrek segurtasun-plana eduki edo ez, nahitaezkoa izango da obra-eremua eta irakaskuntza-eremua guztiz bereiztea. Horretarako, baldintza hauek bete beharko dira:

- Obra-eremua erabat hesitzea.
- Obrakoak bakarrik diren ibilgailuak eta langileak sartzeko bideak sortzea.
- Obrakoa ez den pertsona orori sartzeari galarazteko kartela.
- Ibilgailuak sartzen diren atetik oinezkoak sartzeari galarazteko kartela.
- Plano bat ikastetxearen sarreran eta obra-gunean ikusteko moduan jartzea. Plano horretan bi guneek argi eta garbi bereizita, koloreen arabera, agertu beharko dute, behar diren sarbide eta adierazpenekin. Plano hori ikastegiko Zuzendaritzaren eskura ere jarriko da.
- Obretako ibilgailuak eskola-gune irekitik sartu behar izanez gero, obrako arduradunak betiere izan beharko ditu langileak, sarrera-irteerak kontrolatzeko eta ikasleen eta ikastetxeko pertsonalaren segurtasuna bermatzeko.

6.5. TABAKOA ETA EDARI ALKOHOLDUNAK

Araudiak dio debekatuta dagoela ikastetxeetan tabakoa edo alkohola banatzea eta kontsumitzea, ikasleak edozein adinetakoak izanik eta ikasketak edozein motatakoak direlarik ere, eta ikastetxeko zuzendariaren ardura da araudi hori betetzea.

7. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUAREN ARAUDIA

Lan-arriskuen prebentzioari buruzko informazio guztia <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurkitza/hezkuntza-lapz/> webgunean dago, «Prebentzio Zerbitzua» atalean, eta prebentzio-zerbitzuko teknikariei ere kontsulta egin dakiekeela.

ZERBITZU ZENTRALAK		LAPZ arduraduna	945 018 411
		Higiene arloa	945 018 451
		Psikosoziologia arloa	945 016 546
		Segurtasun arloa	945 016 545
LURRALDE HISTORIKOA	GUNEA	ARLO TEKNIKOAK	LANEKO OSASUN ARLOA
ARABA	1. GUNEA	945 01 84 51	688670550
BIZKAIA	1. GUNEA	94 403 11 92	94 4031194
	2. GUNEA	94 403 11 93	
	3. GUNEA	94 403 11 93	
	4. GUNEA	94 403 11 92	
GIPUZKOA	1. GUNEA	943 02 31 74	943 023170
	2. GUNEA	943 20 84 44 181 luz.	943 700491



7.1. SEGURTASUNeko LAGUNTZAILEA

Ikastetxearen hezkuntza-kudeaketarako murrizketa-orduen zati bat esleituko dio zuzendariak eginkizun hori bete behar duen irakasleari. Prebentzio Zerbitzuak egiten dizkion bilera-deietara joateko, irakasle horren ordutegian ahal dela ez da jarriko irakaskuntza-arduraldiko ordurik astearteetan, 8:00etatik 11:00etara.

Komeni da laguntzailea behin betiko irakasleren bat izatea, edo gutxienez ikastetxean nolabaiteko segurtasuna edukitzea, haren lanak jarraipena izan dezan.

7.2. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA PREBENTZIO-ARLOAN

Prebentzio-arloko prestakuntza emateko -31/1995 Legearen arabera obligazioa baita-, irakasleen prestakuntzarako edo ikastegiari eskaintzeko orduetatik urtean gutxienez 2 ordu gordeko dira. Prebentzio-zerbitzuak ikastetxe bakoitzean emango du prestakuntza, behar den aurrerapenarekin zehaztutako egun eta orduetan.

7.3. LARRIALDI-SIMULAKROAK

Simulakroa urtean behin egin behar da, ahal dela ikasturtearen hasieran, derrigorrezkoa da, eta IUPen sartu behar da. Egin ondoren, simulakroaren ebaluazioa bidaltzeko bide bakarra dago: «**Segurtasuna. Larrialdiak**» atalean prestatutako web-inprimakia bete behar da.

7.4. BOTIKIN ERAMANGARRIA

Lantokietarako gutxieneko segurtasun- eta osasun-arauak ezartzen dituen 486/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, lantoki orok gutxienez botikin eramangarri bat izango du, honako hauek edukiko dituen: desinfektante eta antiseptiko baimenduak, gaza esterilak, kotoi hidrofiloa, bendak, esparatrapua, apositu itsasgarriak, guraizeak, pintzak, eta erabili eta botatzeko eskularruak.

Lehen sorospenetarako materiala aldiro aztertuko da eta, iraungi edota erabili bezain laster, berria jarriko da. Eskatu eta birjartzeko: [LAPZ - Eusko Jaurlaritza - Euskadi.eus](#)

7.5. LAN-ISTRIPUAK

Hezkuntza Sailaren web orriko Segurtasuna-Lan Istripuak izeneko atalean agertzen den eskemaren arabera gauzatuko dira osasun-laguntza eta jakinarazpena.

[Segurtasuna. Lan istripuak - LAPZ - Euskadi.eus](#)

Ikastetxeko zuzendaritzak **istripu guztien erregistro bat eramango du, bajak sortu ala ez.**

Ikastetxeko langileei egindako erasoak, nahita edo nahi gabe eginak, lan-istriputzat joko dira, eta erregistroan jasoko.

Amatasuna Babesteko Prozeduran, ikastetxean gertatutako istripuen erregistroa zein gorabeheren erregistroa eska daitezke.



7.6. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Informazioa emateko eta erregistratzeko prozedurari jarraikiz, zuzendaritza-taldeak ikastetxeko langile guztiei Ikastetxeko Lanpostuaren Lan Arriskuen Ebaluazioa eta Larrialdi eta Ebakuazio Plana emango dizkie.

8. DATU PERTSONALEN BABESA

Ikastetxeak bere zereginak betetzeko erabiltzen dituen datu pertsonalak ez dira ikastetxearenak, baizik eta ikaslearenak, haren senideenak, ikastetxeko langileenak edo ikaslearekin harremana duten beste pertsona fisiko batzuenak. Haiek dira beren informazio pertsonalaren benetako titularrak. UHElko langileek pribatutasuna eta intimitatea errespetatuta eta arduraz tratatu behar dituzte datu pertsonalak, eta ikasleen interesa eta babesa lehenetsi behar dituzte. Datu horiek kudeatzeko orduan, bi arau hauetan ezarritakoa beteko da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Eskolatzeko-prozesuan zehar sortzen den informazioa Sailaren aplikazio informatikoen bitartez bilduko da. Gainera, ikastetxeak derrigor eman behar dio datu pertsonalen tratamenduaren oinarriko printzipioei eta arriskuei buruzko prestakuntza hezkuntza-komunitate osoari. Titularrei hizkera ulergarrian eman behar die datuak babesteko politikaren eta horiek gordetzeko epearen berri.

Ikastetxeak etengabe eguneratu behar ditu datuak, barne-prozesuek behar bezala funtziona dezaten. Beraz, ikasleak kontzientziatu behar ditu, datuak aldatu behar badira jakinaraz dezaten eta, hala, eguneratu ahal izateko.

Erabiltzaileek eskubidea dute datuetara sartzeko eta horiek zuzendu, ezabatu eta eramateko, bai eta tratamendua mugatzeko edo horri uko egiteko ere.

Hezkuntzaren arloan, bereziki zaindu beharrekoa da ikasleen osasunari buruzko datuen tratamendua. Ikasleen osasunari buruzko datuak dira, esate baterako, hezkuntza-premia bereziei buruzkoak (adibidez, desgaitasunen bat), alergia edo intolerantzien ingurukoak bai eta ikasleen txosten psikopedagogikoetan jasotako datuak ere, besteak beste.

Beharrezkoa izan daiteke ikastetxeek eta, bereziki, bertako langileek euren ikasleek gaixotasunen bat edo alergiaren bat daukaten jakitea. Eta, horretarako, informazio hau ahalik eta berme handienekin tratatzeko neurriak hartu behar dira.

Horregatik, eta ikasleekin edo, kasua bada, euren legezko tutoreekin adostuta, informazio hori behar bezala tratatzeko behar diren protokoloak ezarriko dira, bai ikastetxearen ohiko funtzionamenduan (ikasgelan, aisialdi-ordutegian, gorputz-hezkuntzan, jangelan, erizaindegian, ebaluazio psikopedagogikoa egitean, eta abar) bai ezohiko egoeretan (irakasleen eta tutoreen ordezkapenak, urteurrenen ospakizunak, irteerak, udalekuak, eta abar).



9. IKASTETXEEN JABETZA INTELEKTUALA

Obra-zati txikiak eta tartekako obrak –plastikoak, argazkigintzakoak eta figuratiboak– erreproduzitu, banatu eta publikoki komunikatu nahi badira, 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuari jarraituko zaio (Jabetza intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena Apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretua, gai horri buruz indarrean dauden lege xedapenak erregularizatu, argitu eta egokitzen dituen (begiratu, batez ere, 32. artikulua)).

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data

Lucía Torrealday Berrueco
HEZKUNTZA POLITIKETAKO SAILBURUORDEA



I. ERANSKINA

BESTE HHI BATERA LEKUALDATZE ESKAERA / SOLICITUD DE TRASLADO A OTRO CEPA

IKASLEAREN DATUAK / DATOS DEL ALUMNO/A:

IZENA / NOMBRE:	ABIZENAK / APELLIDOS:		
HNA / DIE:	IDENTIFIKAZIO IDENTIFICACION:	ZENBAKIA	/Nº

GAUR EGUN MATRIKULATUTA / ACTUALMENTE MATRICULADO/A EN:

IKASTETXEA / CENTRO:
MAILA / NIVEL (Zehaztu gradu, modulu eta esparruak / especificar grado, módulo y ámbitos):

LEKUALDATZE ESKAERA EGITEN DUT / SOLICITO EL TRASLADO A:

IKASTETXEA / CENTRO:
INGURUA / CÍRCULO:
TXANDA / TURNO:

ARRAZOIA / MOTIVO:

--



Jatorrizko ikastetxeari eta lekualdatzea eskatu dudanari nire asmoen berri eman diet. / He informado tanto al centro de origen como al centro al que solicito el traslado.

DATA ETA SINADURA / FECHA Y FIRMA: